



IRUÑXEME

Antonio Maria Labaien

Iturria: *Teatro osoa euzkeraz (I)*, Antonio Labayen.
La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LabaienIrunxeme.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

IRUÑXEME

IRU EKITALDIKO ANTZERKIA

E.B.B.ko
lendakari agurgarri dan
ZIAURRIZ'tar DOROTari
Iruñan 1935 Garagarrillaren 30n
ospatutako Aberri Egunaren oroiz
Egilleak

ANTZEZ-LAGUNAK

PERMIN: Lege-gizon eta zaldun naparra. Irurogei bat urte.

ANDRE ITZIAR: Perminen emaztea. Berrogeitamar urtetik gorakoa.

ENEKO: Semea, 25 urteko mutilla.

ORREAGA: Alaba, 23 urte ingurukoa.

BIRILA: Antziñako kondaira-zalea; gazte izana...

KRISTOBAL: Gizon sendo ta ausarta. Ameriketan aberastutakoa, Perminen adiskide ta adin batekoa.

MIEL-MARTIN: Baserrian gelditutako Kristobalen anai gazteagoxea.

AUSTIÑE: Miel-Martiñen emaztea.

SALOME: Bion alabatzakoa.

PELI: Bizkaitar mutil gazte bat. Enekoren adiskidea.

NESKAMEA



LENENGO EKITALDIA

(Letradu lan-gela, Mezkiriztar Perminen etxean. Idazteko mai bat baztar batean. Ormetan liburutegia. Aurre-aldean zenbait eser-leku ta besaulki. Zokoalde geiena, egutera leio aundi batek artzen du, bertatik eguzki argia bete betean sartzen dalarik. Urrutira enparantzako etxe batzuek ikus bitez; ta al bada Naparroako Aldundi jauregia.

San Permin aurre-eguneko goiza da. Oraintsu orain.)

I. AGERRALDIA

Permin eta Itziar.

PERMIN: *(Batetik bestera dabillega, kezkatu ta aldarte txarrean)* Au lotsagarria da! Oraintxe ez dakit zer egin mutillarekin! Zer esango duten ere Iruña guzian nere adiskide ta nere... etsaiak! Aurtengoz iru urte galdu dizkit seme ajolagabe orrek. Kaskallu alena! *(Amorruaz)* Ez det geiago ene begi aurrean ikusi nai!

ITZIAR: Ez zaitelaa orrela aserratu. Zer egingo degu bada. Urrena izango da. Onenean...

PERMIN: *(Zakar)* Ezta txarrenean ere! Ta isilik zaude geiago aserratu nai ez banazu. Asper-asper egiña nago. Gañera sutzen nauena, bera lasa-lasa etorriko zaigula ala bearrez. *(Ukabillaz mai gañean zartako bat joaz)* Ez ba! Ez diteke onela utzi.

ITZIAR: *(Otxan)* Ez purukatu beintzat maia ta zere eskua. Gero ere bear dituzu. San Perminetan gaude ta egun oiek igarotzen utzi itzazu-ta...

PERMIN: Ortakoxe nago! Ez! Gaur bertan Ameriketarako txartela eskatuko diot. Dijoala emendik, lenbaitlen, bizitzen ikastera, bederik, liburuak ikasi nai ez dituan ezkeru.

ITZIAR: Geiago okertuko zaigu. Emen beti esamiñetan ondo atera oi zan. Buruz motela balitz, bañan...

PERMIN: Orixe ezin det eraman: alperkeri ta jolasetan astia ta dirua gal-tzea. Urtea urtean buruan.

ITZIAR: Lagun txarrekin biltzen da-ta.

PERMIN: Bara ere ez da zuzena. Guziak alkarren kideak izango dira. Zorakeriz aski degu. Alperrarena egite ori amaitu da. Madrid eta madrilar adiskideei egin dezaieke betiko agur!

ITZIAR: Izan ere zorigaitzoko Madrid ori gazteentzat txarra bait da; usteldua bait dago. Beste tokiren batean Salamankan edo... Nere aizpa monja an dagola agian...

PERMIN: Baita, Unamuno ere!... Ez al dakizu Menditako injenierotza Madridenten... ezik ez ditekela ikasi; baso ta mendi gutxiena dagon lekuan.

ITZIAR: Bai amaika mutil galtzen dira antxe.., Emen unibersidaderik bagenu... Garaia da. Estatutoa bear degu ortarako.

PERMIN: Bai, bañan izan bitartean Eneko, Ameriketara bidaliko det. *(Erabaki sendoz)* Erabakirik daukat; Kristobal Aztizen etxera, Haitira.

ITZIAR: Betiko leloa dezu ori. Orain San Permiñak igarotzen utzi itzazu ta gero...

PERMIN: Jaietarako gaude. Ori ez! Mutillak egin duana egiñaz gero, San Permiñetan Iruñan: ez!

ITZIAR: Azken urtea baldin badu...

PERMIN: Urte guzian jai egin digu. Ta aitzekirik izan ez dezan etxeko oroek irtengo gera Iruñatik, biar bertan.

ITZIAR: Nora ordea, gizona? Ez daukagu ezer gerturik.

PERMIN: Nik bai. Ez gera oso urruti joango.

ITZIAR: Gizonezkoak erraz antolatzen dituzute gauzak. Ta aidetakoren bat, oi duten bezela, jaietara etortzen bazaigu?

PERMIN: Aurten ez datozela badakizu. Ta orrela izanda ere anaiarenean dute nai aña leku. Ez det nai iñolaz ere Enekok jaiak emen igaro ditzan. Bai zera!... Saria gañean?... Ez!... Ta Iruñan gelditzen bagera ez degu mutilla lotuta etxean eukiko. Orretxegatik onena, guziok joatea degu.

ITZIAR: Joatea?... neri ez dit ajolarik, bañan onela itsumustuan, nora ordea?... Itsasaldera?...

PERMIN: Laister jakingo dezu, Orreagari esan diot... eta...

ITZIAR: Noiz arte?

PERMIN: Udara guzirako.

ITZIAR: Lenago esatea zendun.

PERMIN: Orain badakizu, ta ez astirik galdu...

ITZIAR: Ez, ez, banoa. Trena bere garaian eldu bada, anai-arrebak laister dira emen.



- PERMIN:** Eneko ez dedilla oraindik azaldu nere aurrera, bestela izugarriak esango dizkiot. Adituko ditu bereak eta bat.
- ITZIAR:** Esan, esan. Entzun ditzala. Obe da ori ta ez Ameriketara bidali «karibe» artera.
- PERMIN:** Bai an alperrena egin dezala nai añean Haitiko Santo Domingon.
- ITZIAR:** Santo Domingon beltzen artean eta... San Permiñetan?... (*Gaxo*) Zarautza?...
- PERMIN:** (*Zakarkeriz*) Basaburura! Biar bertan. Orain badakizu.
- ITZIAR:** (*Asarre*) Bañan, Permin, zure zaindari eguna etxetik kanpora?
- PERMIN:** Aurten ez gaude jaietarako... Gaur, arropa, tresna ta bear diran gauza guziak gertu itzazu. Gañerakoak nere gain artzen ditut. Kristobal orain deituko det. Ta, aztu bañan len, Kristobal alabarekin bazkaltzera ditugu.
- ITZIAR:** (*Zeken*) Ondo dago; aientzat aña bazkari izango da, bañan goize-xeago jakin izan banu... Noan, noan. Esku-bete lan bilduko da gaur gure etxean. (*Doalarik*) Gizonezkoek erraz antolatzen dituzute gauzak...
- PERMIN:** (*Damuturik ondoren darrakiola*) Aizazu Itziar!... (*Dijoazela ateko txintxarria entzun bedi*)

II. AGERRALDIA

Birila ta Neskamea.

- NESKAMEA:** Sartu bedi. Nagusi-etxeoandrea deituko ditut.
- BIRILA:** (*Sarturik*) Lanpetuta ez badaude beintzat... (*Losintxaz*) Pozik egoten al zera gaur San Permin bezpera bait da.
- NESKAMEA:** Bai. (*Leiora begiraturik*) Oraintxe iragan dire «zaldiko-maldikoak».
- BIRILA:** Egun oietan dantza asko eginen duzu?
- NESKAMEA:** Ez bait dakit ingurutxo besterik dantzatzen.
- BIRILA:** Ori zure errian Leitzan San Tiburtziotan ez da ala?
- NESKAMEA:** Ala bearko.
- BIRILA:** Torizu txurruak erosteko. (*Eskupekoa emanaz*)
- NESKAMEA:** Eskerrikasko, jauna. Banoa otsegitera.
- BIRILA:** Orreaga andereñoa etxean al dago?

- NESKAMEA:** Ez ba; Señorito Enekoren billa atera da estaziora. Pestetara dator!
- BIRILA:** Lenago jakin izan banu!
- NESKAMEA:** Laister da emen.
- BIRILA:** Etortzean izan naizela esango diozu e?
- NESKAMEA:** Bai jauna bai; eta orain nagusiei deitzera noa. Itxoin beza. (*Bijoa*)
- BIRILA:** Itxoin...? Bearko. Ez det besterik egiten aspaldidanik. (*Eseri bedi unetxo batean*)

III. AGERRALDIA

Birila, Permin eta Itziar.

(Datozelarik)

- BIRILA:** (*Eser-lekutik jeikiatz*) Eguz on etxeoak!

(Itziar eta Permin atetik datozelarik)

- ITZIAR:** Baita zuri ere.
- PERMIN:** Ongi etorri, Birila.
- BIRILA:** (*Aienganaturik*) Zer modu Doña Itziar? ta On Permin?
- PERMIN:** Ainbestean.
- ITZIAR:** Ondo, Jainkoari eskerrak. Zuri ez dago galdegin bearrrik; (*Loxintxaz*) gero ta gazteago.
- BIRILA:** (*Baba-lora*) Eskerrik asko Doña Itziar etxeoandre eder, eskuzabal ta biotz aundikoa. Ez zan ohea izango Doña Blanka Napparroako Erregiña; ta Doña Margarita zazpigarren Karlose-na.
- ITZIAR:** Kontu prexkuak aitutzen dizkidazu. Oiek utzita ea gizon au (*Senarrarengatik*) pixka bat alaitzen didazun.
- BIRILA:** Zer gertatzen zaizu bada, on Permin?
- PERMIN:** Gero esango didazu naigabeturik izateko ziorik dedan ala ez.
- ITZIAR:** Enekok urtea galdu duala; berriz ere esamiñetan gaizki irten dala. Ori du guzia.
- PERMIN:** Irugarren urtez, Birila!



BIRILA: Bai, gurasoentzat kezkarik larriena semeen etorkizunean dago.
Herodotok zion:...

PERMIN: Ez nago antziñako kondairak entzuteko.

ITZIAR: (*Berekiko*) Herodoto?... Naiko ero da bera.

PERMIN: Gaurkoak ematen dit kezka.

BIRILA: Gaurkora ni joakizun bada, On Permin. Ez naiz nor, zuen gora-beeretan sartzeko; bañan mutillarekin gertatu zaizutenaz, ni ere naigabetzen naiz. Biotz-miñaren aundia!

PERMIN: Liburuetatik jantzi nai ez dun ezkeroz, lana zer dan ikasiko du. Alik eta laisterren Ameriketara bidaltzea noakizu.

BIRILA: Ameriketara? Onela, berealaxe?

PERMIN: Bai: Santo Domingora.

ITZIAR: Zer derizkiozu, Birila? Gure gizonak bere larrian San Permiñak emen pasatzen ere ez digu utzi nai-ta.

PERMIN: Bai! Eneko ez gelditzeagatik guk ere ez degu Iruñan egingo egun bat bakarrik.

BIRILA: Ortan ederki egingo dezute. Neroni ere biar bertan noa emendik. Gaurko Sanpermiñak ez dira giza-jaiak, astakeriak baizik; jan-edan, dantza ta zurruta; goiz ta arratsalde zezanak okitzeko aiña; astebeteko iñauteri. Lenago Sarasate izaten genuen; orain berriz soñulari ta mozkor geiegi. Orregatik egun oietan Iruñatik alde egin oi det eta zuei agur esatera etorri natzaizue. Ta On Permini biarko orde zorianak ematera.

PERMIN: Egund txarra aukeratu dezu.

BIRILA: Mingarri zait. Ez bait nekin ezer.

ITZIAR: Gazte batek onela mintzatzea. Mutil ona etorri zera nere senarra alaitzeko.

BIRILA: Etxetik ateratzekoan alaituko da.

ITZIAR: Biok iruñsemeak izatea gezurra dirudi. Ni bakarrik emen kanpottarra ta egun oietan Iruñan nik gelditu arazi nai. Bañan «senar dunak nagusia du».

PERMIN: Erabakia dago. Biar abiatuko gara Basabarura. Kristobal Aztiz nere adiskideak, anaiari jarri dion ostatura. Patxarako etxea da ta udarako leku onean. Ni joan etorritan ibilliko naiz nere «buffet»eko lana ez uzteagatik; ta Itziar eta Orreaga antxe geldituko dira.

BIRILA: Agertu bat egingo dizuet nere egin bearrak eragozten ez badidate.

ITZIAR: Ondo artua izango zerala badakizu. (*Birilari*) Ez dizut eserlekurik eskeñi. Zere etxean zaude ta...

PERMIN: Eseri zaitte bai. (*Tokia eskeñiaz*)

ITZIAR: Ni barru ortara noa zer-eginetara. Eneko datorren orrekin eta bigarko gure senarraren ateraldiaz...

BIRILA: Doña Itziar, ni ere banoa. Agur egitera besterik ez naiz etorri. Pizkatean...

ITZIAR: Tira eseririk esan zazu zure agurra. (*Irurok eseriaz*)

BIRILA: Biar goizeko lauretan irtengo naiz.

PERMIN: Goiz alare!

BIRILA: Bai. Emengo kaletako istillua asi bañan len.

ITZIAR: Ez da orrenbeste, gizona; ta gutxiago goizeko lauretan. Garai ortan ez da entzuten ollarren kukurrukoa ta... zera, lo dau-denen zurrunkak besterik.

PERMIN: Orren goiz orde, noruntz joan bear dezun jakin al diteke?

BIRILA: Automobilla artu-ta, Irunberrira. An adiskide batek itxoingo dit eta oñez Leireko mendira egun guzirako.

PERMIN: Joan dan egunetan langar asko zan mendian.

BIRILA: Egualdia zera jaso du. Ederra dago. Ta biar, orain agertu-berri diran arri zar eta ezurrak arakatu bear ditugu. Azalpen aundiren bat egingo degu oraingoan.

ITZIAR: Zu beti gauza zar, arri ta ezurretan oldozten. Ezagun da, ez dezu-la beste kezka aundirik.

BIRILA: Zer nai dezu, bada etxeoandre?

PERMIN: Gure seme Eneko jarriko nizuke aurrean. Itziarrek (*Berekiko*) Onek naiago luke, Orreaga. Iru urte errezkadan kale ta iru milla duro aundi errekarra! alperrik galduak!

BIRILA: Bai, On Permin, arrazoi dezu; bañan kondairak asko erakusten du. Gaur baño gauza garratzagoak gertatu ziran antziñan: Errege II Santxo Abarkaren aldian.

ITZIAR: Zu beti lañoetan bizi zera. Obeto esateko: Kondairaren langar artean.

PERMIN: (*Birilarengatik*) Oiek bizi izaten dira ondoen. Zu zera mutilla!

BIRILA: Olaxe, On Permin. Zerbait alaitzen asi zera.

PERMIN: Zuk ala uste. Barrendik dabil arra. (*Txintxarri otsa entzuten dalarik*)

ITZIAR: Barrendik semea darabilkizu. Atean izan bear dute.

PERMIN: Gure semeak zure antzik balu.



BIRILA: Eskerrik asko, onegiak zerate. Badakizute zuek ere gurasotzat zauzkadala. (*Jeikiatz*) Banoa...

ITZIAR: Bazoazela?

BIRILA: Ez dizuet une onetan galerazi nai. Diosala egin dizuet. Ikusi arte bada. Ondo ibilli. Goraintziak Orreagari; ta Enekori... (*Zalantzan...*)

PERMIN: Makillarekin!

BIRILA: Ez orrenbeste! Aolku on batzuz zuzenduko da.

ITZIAR: Ori esaten diot nik. Oraintxe etxean sartuak dira. Agurtu nai badituzu, Birila.

BIRILA: Pozik alare. Ez det beste gauzarik nai.

PERMIN: (*Asarre*) Eneko ez dedilla sartu onera! Ez det ikusi nai. (*Jeikiatz urduri*)

BIRILA: Sendi arteko asarreak gauza minberak izaten dira. Ez det emen gelditzeko eskubiderik. Agur bada ta...

PERMIN: Laguntzen al zaitut. (*Ate aldera eramanez*) Emendik... (*Iruok doazelarik*)

ITZIAR: (*Beldurrez*) Gaurko eguna ez da atsegiña izango etxe ontan. Joana balego. Jainkoak lagundu gaitzala! A zer nolako Sanpermiñak!

IV. AGERRALDIA

Orreaga ta Eneko.

(Antzeztokia unetxo batean inor gabe. Orreaga ta Eneko, ager bitez burni-bideko geltokitik baletoz bezela, eskuan maletaren bat eta antzekoak dakarzkite)

ORREAGA: (*Eskuan dakarzkina gauzak utzirik*) Ia, ia, itsumustuan Birila orrekin topo egin nun, Aspergarriago dago.

ENEKO: (*Beldurti*) Ori ez da ezer. Atzetik gure aita zijoan. Bakarrik arrapatu nadinean izango da «bronka». Ezta «gamazada»en ere!

ORREAGA: Ez nolanaikoa. Sutan dago aitatxo... Izan ere izugarria egin dezu.

ENEKO: Izugarria?... Izugarriagoa da «kalkulo infinitesimal»! Ez zait buruan sartzen. Alperrik da.

ORREAGA: Alperra zu zera zu. Ez bait dezu batere ikasten. Ez zera leiatzen da...

ENEKO: Ori bear degu, zu erritan astea. Zuri buruan sartzen al zaizu Biri-lari «xankome» ori?

ORREAGA: Ori besterik da. Ez zaidazula Birila aitatu. Ez dezu aitzekirik. Iru urtean deus aurreratu gabe. Lotsik ez dezu.

ENEKO: Ez da dirurik ere. Ba, ba, ez bronkari asiera eman, garaia baño lenago. Gero ere entzun bearko ditut.

ORREAGA: Orren asarre ez det gure aita egundano ikusi. Obe diozu isilik entzun.

ENEKO: Ta uste al dezu Sanpermiñak emen igarotzen utziko didanik?

ORREAGA: Baita zera! (*Itunki*) Okerrena da zuregatik guziok alde egin bearko degula. (*Asarre*) Erdibitu gaitzu. Nere ilusioaren aundia, aurtan emen jaiak igarotzekoa ta... zoaz Basaburura.

ENEKO: (*Arreba alaitu naiean*) Basaburura?... Toki oberik...! Begira Madriden ez banitu liburuak saldu, Basaburuan ortxe nunbait calculo infinitesimal guzia ikasiko nuke.

ORREAGA: Bai, par egin zazu oraindik. Biar bertan abituko omen gera.

ENEKO: (*Zurikatuz*) Arrebatxo! Eman didazun berria illun eta beltz samarra da. Basaburura! Aitak ikazkin sartu nai ote nau ala?...

ORREAGA: Guzia zure ajolagabe izate ta kaskallukeriz.

ENEKO: Gaurtandik zintzotzen asiko naiz... Zin egiten dizut.

ORREAGA: Ez da zin egin bear. Garai onean!...

ENEKO: Beñere ez da berandu. (*Barrena azalduz*) Egi-egitan «Orre»; matematika goitarra ez da neretzako egin.

ORREAGA: Ez zera ba, ain matematiko txarra amatxori dirua eskatzen diozunean.

ENEKO: Bear danean, nork ez daki «arraxkual» egiten?...

ORREAGA: Amatxo dator eta banoa!

ENEKO: Ez! ez! Bion artean jasa errezago eramango degu... Geldi zaitte laguntzalle. Zortzi bat egunerako gortuko banitz bederik.

V. AGERRALDIA

Lengak eta Itziar.

ITZIAR: (*Sarturik*) Emen al zaude a?...

ENEKO: Ama! (*Arenganatu ta besarkatuaz*) Ondo?...



ITZIAR: Zuk naigabez biziaren erdia kenduko diguzu. Azi itzatzu semeak onetarako. Ez dakizu aita nola dagon. Zurea egin ezkeror konpon! Urtea galdu, dirua txautu. Ainbat... Ajolik ez dizula ezagun da. Ez al dezu erantzuten?

ORREAGA: Obe du isilik egotea.

ENEKO: Egun oietan belarriko miñez nabil eta gor samarra nago.

ITZIAR: Ez zaude gor txarra. Entzun bearko dituzu, ba, zureak eta bost. Aita irakiten dago ta ez dakit zer gertatu bear duan emen.

ENEKO: Nai badezute alde egingo det. Ez nazute geiago ikusiko. Bizimodua al dedan eran irabaziko det. Kale-garbitzalle edo...

ITZIAR: Ori esan? Ongi al derizkiotzu etxe oneko semea alproja bat bezela ibiltzea. Gurasoak geiago lotsa arazteko...

ENEKO: Nik ez det erru guzia. Dana adieraziko dizuet; gertatutako guzia ta orduan... (*Belarrira eskua eramanez*) Ai!...

ITZIAR: (*Semearen karrasiari oartzeko*) Ori aitari esan bearko diozu. Ez det ikusi egundaño ain aserre. Karrera utzi ta Ameriketara bidali nai zaitu.

ENEKO: (*Eskua belarrira eramanez*) Miña asi zait!

ITZIAR: Zer gertatzen zaizu?...

ORREAGA: Ameriketara joate orrek mindu du.

ENEKO: Belarri au! Gau guzian trenean etorrita oztu egin naiz.

ITZIAR: (*Semearengana urbilduz eta oso bigundurik*) Esaten dizut ba nik ola-koetan guata pixka bat belarri zuloetan sartzeko. Min ori umetan «gorriak» utzi zizun kondarra dezu. Belarriko miña txarra da gero.

ENEKO: Neri esan!

ITZIAR: Itxasoko bañuak on aundia egiten zizuten.

ENEKO: Ain aundia!...

ORREAGA: Aurten zoaz kontu ori aitari belarrira esatera... Aurten ez dago, ez Sanpermiñik, ez oporraldi, ez itxasoko bañu, ez ezer. Guziaz zuregatik.

ITZIAR: Bai, udara ederra datorkigu; ta jai onak! (*Erdi negarrez ta aserraturik*) Ondo al derizkiozu? Seme galduta!...

ENEKO: Ama! Ez orrela jarri. Izugarrizko belarriko miñez nago.

ITZIAR: (*Belarri minduari begiratuaz*) Gaiztoturik daukazu bai. Ur borikatuaz garbitu bear dezu bereala. Zoaz Orreaga, ur bero billa.

ORREAGA: (*Joanez*) Bañuko gelan gertuko det.

ITZIAR: (*Ama-semeak maitetsu*) Bañan aitak ikusi zaitzanean, apal apal bar-kazioa eskatu lekaiozuke, emendik aurrera zintzo ta gogoz

ikasiko dezula aginduaz. (*Itun*) Ta alare, beranduegi izango ote dan.

ENEKO: Ama, egiñalak egiñagatik alperrik da, zoritxarreko calculo infinitesimal ori ezin det buruan sartu.

ITZIAR: Ez naiz batere arritzen. Zer da izen luze ori! Bañan zerbait pentsatu bearko dezu. Aitak Ameriketara bidali nai zaitu ta au (*Asperenka*) neretzako eriotza izango litzake. (*Ateko zintzarria entzun bedi*)

ENEKO: Ez amatxo, zintzotuko naiz; agintzen dizut.

ITZIAR: Belarriko miña joan al zaizu?

ENEKO: Oraindiokan badet.

ITZIAR: Goazen bada garbitzera. Norbait sartu da etxean ta onera etorriko da. Aita dezu!

ENEKO: (*Joanez*) Ama! (*Elkar besarkaturik biak dijoaz*)

VI. AGERRALDIA

Permin eta Kristobal.

PERMIN: (*Sarturik*) Aurrera Kristobal. Eseri zaite (*Eseririk*) Asko poztutzen naiz zu etorri izateaz.

KRISTOBAL: Badakizu Teresianen ikastetxean dagola Xalome, ta nerekin eramango det gaur Basaburura. Jai oietan an obeki izango da. Aur bat da oraindik eta... Ea zuek noiz zatozten. Naiko leku badegu orain; arras ongi geldi zaigu etxea...

PERMIN: Zure eskeintza ontzat artu nuen eta biar bertan an izango gaituzue.

KRISTOBAL: Au da berriaren atsegiña!

PERMIN: Zuretzat ala bada, poztutzen naiz. Nere adiskide leialenetakoa zaitut eta erabaki ori zergatik artu dedan esango dizut; semearengatik. Bai Kristobal, aurten irugarren aldiz Eneko Madridtik etorri zait urtea galduta.

KRISTOBAL: Bañan...

PERMIN: Bai iru urte galduta, alper gaiztoan; bañan laugarrena, ez! Karrera utzi araztera noakio. Ta noski, oraingoz beintzat Iruñatik alde egin dezala. Ez det nai jaietan emen egon dedin.



KRISTOBAL: Mutillekin bildur izatekoa da. Ezkondu gabekoak alde bat ona badegu: seme-alabarik zaindu bearrik ez. Gaztea da ta zentsua etorriko zaio.

PERMIN: Ez dakit noiz! Aspertu nauka. Itxaropena galdu det. Dijoala nai duan lekura! Zuri mesede bat eskatuko nizuke.

KRISTOBAL: Egin al nezakeana baldin bada, pozik gañera. Agindu.

PERMIN: Bada, seme orrek lan-egiten ikasi dezan, Ameriketara bidaltzeko asmoa artu det. Zuk Santo Domingon lana emango bazenio...

KRISTOBAL: Antilletara! Zer esaten didazu gizona! Ura ez da gero Euskal Erria!...

PERMIN: Ori nai det bada. Ondoegi bizi gera emen. Beste lurraldeetan nola bizi diran ikasi dezala; lan egiten, ogia irabazten ikasi, ikasi dezala...

KRISTOBAL: Zure semea bestela oiturik dago. Ez luke an etsiko.

PERMIN: Zuek etsi zenduten bada.

KRISTOBAL: Bearko! Soñean generamanaz etxetik joanaz gañera: pardedtxo bat arropa, letrak ozta-ozta ezagutzen, erdera gutxi, ta sakelean diru gutxiago.

PERMIN: Zuek benetan txalagarriak zerate; zuek, euskaldun izena mundu guzian goratu dezutenak. Zuen aurrean nere semeak lotsatu bear luke. Zuengandik ikasi dezala bada lan egiten, ogia irabazten... gizon izaten! Zure mutiltzat arturik, jan-trukean, ori bederik erakusten badiozu, pozik geldituko naiz.

KRISTOBAL: Zuk eskatzea aski det. Ortan bazaude, Santo Domingoko nere etxean artuko det. Nai badezu neronekin udazkenean etorriko da ta lanean jarriko degu.

PERMIN: Eskerrik asko, Kristobal; eskabide ori ez zenidala ukatuko ziur nengon. Millesker! Bañan Eneko morroi antzera artzea nai nuke; ez nere semea dezulako, nai duana egiten utzi.

KRISTOBAL: Orretzaz mintzatzen al gera urrena. Beraz Santo Domingo-ra!, karanba, karanba!

PERMIN: Bai, bai, erabaki det.

KRISTOBAL: Andik berri txarrak datozkit bada. Azukre ta kapea ezin saldurik itsasora botatzen ari dira. Ori aski ez dala, azkeneko ekaitz eta aire burrundak ikaragarritzko kalteak egiñak omen dira. Gu ainbestean goaz. Gaur artu det karta; txeke bat bidaltzen didate. Au dala-ta, on Permin, Iruñako Ban-

koan kontua dolarretan irikiko ote lidateke?... Zu Banka orretako letradua zeran aldetik...

PERMIN: Baietz uste det. Dana dala zuzendariari galdegingo diot.

KRISTOBAL: Ez dago presarik. Orain illobaren billa noa Teresianetara. *(Jeikiaz)*

PERMIN: Bazkaltzera espero zaitugula badakizute.

KRISTOBAL: Ortan gelditu giñan, ez nago aztuta; illoba ere pozik etorriko da zure alabarekin izateatik.

PERMIN: Ongi, ongi. Joan-etorria egiten dezun bitartean, Bankora telefonoz deituko det.

KRISTOBAL: Itzuli nadinean esango didazu. *(Abiatuaz)*

PERMIN: Ez det uste eragozpenik izango danik.

KRISTOBAL: Bankoak, zertatik dagonean, *(Dirua adieraziz)* erreztasunak ematen dituzte.

PERMIN: Diruarekin joanda, bai.

KRISTOBAL: Bazkaritakoan itzegingo degu. Zuen etorrera Basaburura, atsegin zait. Ameriketara semea bidaltze ori... *(Dijoazelarik)* Santo Domingora gañera! arriturik utzi nau... karanba! karanba!

PERMIN: Zer nai dezu: gauzak ala datoz eta... *(Bijoaz)*

VII. AGERRALDIA

(Antzez-lekua unetxo batean iñor gabe gelditzen da. Alako batean atetik Enekok burua ager beza, zeletan, nor dagon jakin naiean bezela. Aita herrero datorrela oartzten dunean, Eneko beldurti gorde bedi)

On Permin bakarrik

(Kezkati ta illun sartzen da. Urrutizkiñera joanik txintzarriari eragiten dio norbaiti deitu naiaz)...

PERMIN: Emen, Mezkiriz, Permin... bai. Iruñako Bankoa al da?... — Entzun, entzun!... Zuzendari jauna or al dago?... Bai, esaiozu, arren, berakin itzezin nai dedala... Bai, Mezkiriz. Eskarrikasko. —Permin Mezkirizekin ari zera. Bai... Ongi, eska-



rrikasko. Zu ere bai Don Xabier?... Kristobal Aztiz txekez zer egin dezuten jakiteko deitu zaizut... —Bai dolarretan. Parisko Amerikan Bank-en aurka... —Kristobal galdezka nuan arestian... —Bai, bai zailla dagola. Gobernuaren eragozpenak. Ezin ekarri?... Bai... Esango diot... Zuregana joan dedilla gaur bertan... Nola daude dolarrak?... Zortzi ta ogei?... gora dijoa... Ori esan; peseta bera... Baita baita... Guziok onik gaude; eskarrikasko... Berriz ere semearekin det naigabe aundia... Bai bai, sutan nago!... Gero itzegingo degu orretaz... Biar Basaburura goaz... Bai bai... Udara guzirako edo... Bazkalondoan Kasinora joan naiz... Betiko orduan. Bai gero arte bada. (*Urrutizkiña ixekiaz bere lan-maira dijoalarik*)

VIII. AGERRALDIA

Permin eta Eneko

*(Eneko beldurrez sartzen da; elkar ikusitakoan
Eneko zearka begiraturik gelditzen da.
Isilune larri batek darrai. Azkenik aitak
oso asarre erritari ekiten dio)*

PERMIN: Ez zekiat nola ausartzen aizen nere aurean azaltzen.

ENEKO: (*Lurrera begira*) Ez zaitut agurtu-ta...

PERMIN: Asko ajola zaik! Lotsaren apurrik bauke... (*Eneko isilik darrai ta Aita eserlekutik jeikitzen berriro erritari lotzeko*). Pozik gelditu al aiz egindakoaz?... Iru urte galdu, millaka pesetak erreka-
ra botiaz. Iri zer? Naiko jolas ta opor Madriden egin bait dek! I lasa bizi ezker, etxeok, gurasoak, naigabez il ditezela! Oraingo gazteen eskola ori dek. Ez da ala?...

ENEKO: (*Zerbait esan naiaz*) Nik...

PERMIN: Ez diat aitzekirik entzun nai. (*Asarre*) Seme txar, gazte galdu alena ez bestena! (*Onuntz eta aruntz urduri dabillelarik*)

ENEKO: Nik ez det karrera ortako balio. Matematikak ez zaizkidala sartzten esan nizun.

PERMIN: Iri buruan zer sartzen zaikan bazekiat: ergelkeria, txorakeriak. Orrekin jango dek. (*Gero ta geiago suturik*) Bada, ikasi nai ez dekan ezker Ameriketara joango aiz. Paper eta agiriak eskatuak dizkiat eta badakik, ontzian sartu ta Santo Domingora. Lan egiten erakutsiko ditek eta bizitzen ere bai...

ENEKO: (*Apal*) Bidaltzen nazuten lekura joango naiz.

PERMIN: Ori, gero. Biar bertan etxeko guziok Basaburura joango gaituk. Zer usta uan, jaiak emen igaroko ituania?... Ez!

ENEKO: Berdin zait. Zure esanera nago.

PERMIN: Berdin zaikela? Nere esanera?... Orain ikasiko dek aita nor dekan. Bigunkeriak amaitu dituk! Bizitza zer dan ezagutu araziko diat.

IX. AGERRALDIA

Lengak, Itziar eta Orreaga

ITZIAR: (*Errita bizian Permin ari dala oarturik*) Errieta, errieta; ori bear du ajolakabe orrek: «Pilipika» on bat...

PERMIN: «Pilipika» eta Amerika! Erritak bakarrik ez bait du balio onelakoarekin. Ta ez zatozkit orain mutillaren alde bigun-bigun itzegitera.

ITZIAR: Ez natorkizu orretara. Mutillari ekin gogor. Leentxeago artu izan bazendun obe. (*Senarrarengana oso urbiltzen da, Eneko ta Orreaga beste muturrean gelditzen diralarik*). Baula egiten asia naiz eta zuk zer arropa jartzea nai dezun galde nai dizut.

PERMIN: Betikoa! Zeorrek nai dezuna. Gauz aundirik ez. Ni aruntz ta onuntz ibilliko bait naiz. (*Izketan darraite*)

ORREAGA: (*Anaiari*) Ta bronka aundia izan al da?

ENEKO: Epika!... Eskerrak garaiz sartu zeratena, bestela...

ORREAGA: Ta Amerika, aitatu al dizu?

ENEKO: Amerika, ta Ozeania! Antilletako Santo Domingo! Ez dakit nun dagon ori!

ORREAGA: Haitiko ugarteak; Karibe itsasoan.

ENEKO: Beltzen artean biziko naizela ba al derizkiozu?

ORREAGA: On Kristobal eta an bizi dira ta...



ENEKO: On Kristobal indio bat da.

ORREAGA: Ta zu... presko bat: buruntzia.

ENEKO: Bai bear; bero dago Iruñan.

ORREAGA: Beroago dago gure aita: sutan, Ez det ain asarre ikusi egundaño!... Kixkalita!

ENEKO: An, Basaburuan itzalean prexkatuko gera guziok.

ORREAGA: Bai, ori da. (*Itunki*) Udara guzian egon zaite an, otzez, langar artean; gogaituta. Jolas ederra! (*Asarre*) Guziaz zuregatik!

ENEKO: (*Ixekez*) Birilari esango diogu laguntzera etortzeko.

ORREAGA: Ez ille artu e? Utzi zaiozu pakean Birila orri. Obe dezu isilik egon. Aitaxo begira daukazu.

ENEKO: (*Ben-ben jarriaz ta eskua bekokira eramanik*) Logaleak nago; gau guzian trenean begirik itxi gabe, ta etxean zer nolako arreta egingo zidaten beldurrez. Eskerrak estaziora zu bakarrik etorri zerana...

ORREAGA: Ez, zera! Txistulari ta zaldiko-mandikorekin aterako giñan zure billa. Ta kamion aundi bat zure... (*Beatzaz biribil aundi bat antzeturik*) kuia jasotzera.

ENEKO: Errukitu bearrean, nere bizkar parra...! ematen badizut...! (*Jostaketa naiez*).

ORREAGA: Zaude geldirik. Ara! Aitak ikusi zaitu.

ITZIAR: Orreaga! Ez aztu nik esandakoa; gañera maletan sartu bear dituzu aitaxoren alpakazko txamarra ta... «bikarbonatoa».

ORREAGA: Bai ama, sartuko ditut.

ITZIAR: (*Enekori*) Zuk ez dakit zer arropa dezun eta nola ote datorren.

ENEKO: Baula geltokian gelditu da. (*Agri bat sakaletik ateriaz*) Txartela emen det...

PERMIN: Madrideko Monte de Piedad en zenbat gelditu dan jakin nai nuke. Itziar! Ez zaio besterik egin bear; soñean daramazkinaz dijoala.

ITZIAR: Onuzkero ala bearko du. Naita ere berririk egiteko betik ez dago-ta.

PERMIN: Esan bear nuena esan det. (*Berriz txintxarria entzun bedi*)

ITZIAR: Esatea da errazena; egitea gaitzenik. Ateko txintxarria zan. Gaur ez gaitue pakean utziko.

X. AGERRALDIA

Lengok eta Neskamea.

NESKAMEA: (*Sarturik*) Don Birila da. Unetxo batean agurtu nai ditula.

ITZIAR: E?...

NESKAMEA: Beso azpian pakete bat dakarki.

PERMIN: Sartu dedilla. (*Neskame bijoa*).

ITZIAR: Gaur ez digute ezer egiten lagako.

ENEKO: (*Arrebari*) Zuretzako erregaloren bat ekarriko du.

ORREAGA: Bai, zure kalabaza!

XI. AGERRALDIA

Lengok eta Birila.

BIRILA: (*Sarturik*) Egun on! Emen naiz berriz! Galeraztera banator barkatu.

PERMIN: Zu etxekoa zaitugu.

ENEKO: (*Arrebari albora*) Nik esaten nizuna.

ORREAGA: (*Asarre*) Aspergarria zaude.

BIRILA: (*Itziarri*) Lanpetuta e? etxeko-andre.

ITZIAR: Zerbait zerbait...

BIRILA: (*Eneko ta Orreagarengana zuzenduaz*) Ta gazteok zer diote? (*Enekori eskua estuturik*) Zer modu Eneko? Gaur goizean eldu zerala badakit.

ENEKO: Osasunez ondo. Zu ere bai?... Bestela...

BIRILA: Esan didate, esan didate... Itzegino degu... Ai, ai, ai!

ENEKO: (*Isilka*) Bañan, aita aurrean ez dagola.

BIRILA: Baita, baita... (*Orreagari*) Zu ere ez zaitut lenago ikusi.

ORREAGA: (*Latz*) Nik ere ez.

BIRILA: (*Permini*) Biar zure urte betetzea dala ta, uskeri auek eskeintzera etorri naiz onela alde zurretik zorianak emanik. (*Permini eskuetara eman ez*)

PERMIN: Bañan, gizona, ez zenduen neri ezer ekartzen ibilli bearrik. Zu beti bezin zintzo ta gizartekoa. Millesker adiskide ona.

BIRILA: Ez da ezeri. Utsa: zigarro batzuek eta liburu bat.

ITZIAR: (*Semeai*) Ikasi, ikasi kunplituak izaten.



BIRILA: Izugarri! Gero Sagasetanetik «koronilla ta gorringotxo» batzuek ekarriko dizkitzue. Oiek zuentzat, On Permin gozo-zalea ez dala badakit-eta...

ITZIAR: Ori geiegizkoa da, Birila. Eskerrikasko. Bañan asatetu egingo gera. Jango ditugu; bañan esku-zabalegia zera.

ORREAGA: Onela da. Eskerrikasko. Birila. Ez dezu Iruñako mutil geienen antzik.

ENEKO: Ni ere tartean sartuko nazu... «iruñxeme».

ORREAGA: Noski; buruz bera gañera.

ENEKO: Ederki. Basaburukoak fiñagoak izango dituzu.

BIRILA: Ni ere *iruñxeme* nazute.

ITZIAR: Bai, *iruñxeme* ona, erriko jaietatik igesi dijoana!

PERMIN: Ongi egiya. Emen ez dago astakeria besterik. Oraingo gaztedia...

ITZIAR: Ez zendun ori esango, zezenen aurretik ibilli oi ziñanean...

PERMIN: Ez da berdin. Orduan...

ENEKO: (*Orreagari*) Entzun al dezu? Ia aitarik gabe gelditu omen giñan.

ORREAGA: Ez zazula txorakeririk esan.

BIRILA: Zezenek arrapatu ez nazaten ni ere biar goizean irtengo naiz Iruñatik. Egun oiek ongi igaro; ta ikusi arte. (*Abiaturik*) Agur ba guzoi.

PERMIN: Ba al zoaz dagoaneko?...

ITZIAR: Gurekin bazkaltzera gelditu nai badezu...

BIRILA: Eskerrik asko, etxeoandre. D. Permini esan diot: emendik illa-bete batera Basaburuan agertu bat egingo dizuedala. Orduan...

ITZIAR: Nai dezun bezela. Onik izan eta ondo (*Alkarri eskua estutuaz*)

BIRILA: Agur Orreaga. Asko jolastu ta... pianoa jo. Aita Donostiren «Oñazez» ura. (*Begiak jasorik*)

ORREAGA: Bearko! Oñazez, Parrez ez beintzat.

BIRILA: (*Enekori*) Zuri deus ez. (*Isilka*) Bazkalondoan Kafe Kutzera joango al zera?

ENEKO: Etxetik ateratzen uzten badidate, bai.

BIRILA: Gero arte bada. (*On Permini*) Bazkal ondoan Kasinoan sartu-irten bat egingo det. (*Dijoalarik*)

PERMIN: An izango naiz. On Xabierri itzemana nago. (*Ateraño lagundu naiez*)

BIRILA: (*Losintxaz*) Ez dedilla neregatik inor igi. Kaleko atea badakit.

ORREAGA: (*Berekiko*) Bai bear. (*Atetik agurtuaz*) Egun on! Ikusi arte.

PERMIN: Zoaz ondo, gero arte.

ITZIAR: Agur ta Ariyo!

ENEKO: Bidai on!

ORREAGA: Ongi ibilli! (*Birila bijoa*)

XII. AGERRALDIA

Itziar, Permin, Oreaga, Eneko ta Neskamea.

(Isil-unea)

ORREAGA: (*Enekori*) Etxetik joan zaigunean pozik nago.

ENEKO: Ez emakumea! Ori dagonean «nerrea» aztutzen zaio aitari. Orain berriz erasoko dit. (*Txintxarria entzun bedi*)

ITZIAR: (*Orreagari*) Atea zan, ez da ala?

ORREAGA: Bai ama.

PERMIN: D. Kristobal izango da.

ITZIAR: Izan ere. (*Errelojura begiraturik*) Amabiak baidira.

NESKAMEA: (*Atetik*) D. Kristobal da, illobarekin.

PERMIN: Sartu itzatzu onera.

ITZIAR: (*Neskameari*) Ta asi zaite maia jartzen. (*Bijoa neskamea*) Gaur semeak, bixitak eta abar, goiz guziaz galdu degu.

ENEKO: (*Arrebari*) Bixitai eskerrak, aita neri erritan egiteko ezin txanda arrapaturik dago.

ITZIAR: Ez geiegi esan. Ekaitza lertuko da oraindik.

XIII. AGERRALDIA

Lengoak, Kristobal eta Salome

(Au ikastetxean ibilli oi dituen soñekoaz.

Permin eta Itziar ateruntz joan dira

ongi-etorria ematera)

ITZIAR: Aurrera, aurrera!

PERMIN: Aguro itzuli zera.



KRISTOBAL: (*Illobarekin sarturik*) Au zai neukan-eta. Zuek ere bildu zerate (*Ondoren elkar agurtzen dute, gizonzkoek esku emanaz eta emakumezkoek musuka*)

ITZIAR: (*Salomeri*) Señorita bat egiña zaude.

SALOME: Bai, soñeko onekin... (*Muxin*)

KRISTOBAL: Maistra egin zaigu ta pozik nago.

PERMIN: Ez da gutxigorako.

ITZIAR: Zorionak, D. Kristobal. Ori da illoba, ori!

PERMIN: (*Enekorri zorrotz*) Ikasi zak! Lotsik bauke...

ITZIAR: (*Etenaz*) Ez da au erritako garaia. Gero ere beta izango dezu. Pakean bazkaldu bear degu.

KRISTOBAL: Bai Itziarrek arrazoi du. Permin! Zer egingo zaio ba. Daraman bideak atxituko du. (*Itziar, Permin eta Kristobalek alde batean sail bat egiten dute: ta beste aldean Orreaga, Salome ta Enekok*)

ENEKO: Aitaren asarrea gelditu arazi du berriz; (*Arrebari*) Nitaz entzute txarra izango du zure lagunak. (*Salomerenatik*)

ORREAGA: Merezi dezuna.

SALOME: Ez da egia izango.

ENEKO: Noski. (*Salomeri irritsu*) Ta eskolan asko ikasi al dezu?

ORREAGA: (*Asarre*) Zuk baño geiago!

SALOME: Maistra egin naiz beintzat.

ENEKO: Badakit, bai.

SALOME: Ni bakarrik ez. Aurten Teresianetan 28 maistra atera gera.

ENEKO: Nik ere Teresianetan sartu bearko det.

ORREAGA: Bai, artuko zaituzte.

SALOME: Neskatxak besterik ez bait gera.

ENEKO: Ta nolakoak gañera: gain-gañekoak...

ORREAGA: Ez kirtena izan. Aita begira daukazu.

ENEKO: Gizona iltzen duten begiratu batzuek badirala badakizu...

ORREAGA: Isilik zaude...

ITZIAR: (*Guzioi*) Bazkaltzeko garaia degu.

KRISTOBAL: Etxeko-andreak agintzen du emen.

PERMIN: Goazen bada bazkaltzera. (*Kristobali*) Gero bakarrik itzegin bear degu. Bankokoa egiña dago.

KRISTOBAL: Nai dezunean.

ITZIAR: (*Alabari Atetik Permin eta Kristobalen ondotik dijoala*) Ea «Orretxo!» Salome zure gelara eraman zazu «toilette» pixka bat egin nai badu ere. Ta gero bazkaltzera zatozte... (*Bijoa*)

ORREAGA: Bai amatxo: bagoaz. Atoz Salome.

SALOME: Goazen ba. (*Abiatuaz*)

ENEKO: Neri ez dit iñork esan bazkaltzera joateko. Ta ori nere kalabazaz guzientzat zer jana badagola. Zitu ederra! (*Orreaga ta Salomek parra dagite dijoazela*) Ja, ja, ja! Ez parrik egin. Nere larriak oraintxe asten dira... (*Berekiko*) Beingoan Basaburuan, ez! Ameriketean banengo naiago nitek!...

OIALA



BIGAREN EKITALDIA

(Basaburuko errixka bateko etxe larrain bat, orain enparanza ta atsedean leku biurtua. «Hotel Basaburu»: menditar etxe-eder aundia ikuslearen ezkerretara. Eskubitarra bide zabala urbil dagola igartzen da. Zoko aldera oian ta mendia. Hotel Basaburuko etxeak erdian ate aundi bat izango du; ta alde batera ta bestera belena ta bidea antez-lagunak eroso joan-etorriak egin al izateko).

Udarako arratsaldean gaude. Langarra dago mendi-oianean. Noizik beinka abelgorrien orrua entzun bedi ta bide zabalelik doazen beribillen otsa... Illuntzen doa.

I. AGERRALDIA

Orreaga, Salome, Agustiñe eta Miel-Martin.

(Orreaga ta Salome zumezko besaulki batzuetan, alboan maitxo bat dutela diardute. Agustiñe etxeoandrea bere zer eginetan dabil etxera maixko sartu irtetzen dalarik. Miel-Martiñ norbaiten zai edo bidezabal aldera begira dago, bitartean etxeo tresnaren bat antolatzen. Salome lenengo ekitaldian baño askozaz apañago jantzita)

AGUSTIÑE: *(Miel-Martini)* Nola etorriko da jende geiago ba? Udara guzian ez gera langar artetik atera-ta. Lursagar guzia ordoiez betea dago.

MIEL-MARTIN: Kristobali ostatua ipintzea bururatu zitzaion eta errekarra dirua botatzen ari gera. Leku au... ez bait da Lekunberri!

AGUSTIÑE: D. Permiñen sendiarengatik ez balitz iñor ez. Obe gendun lenengo eran jarrai.

MIEL-MARTIN: Esango nuke. Gero Salome maistra egin dan ezker oso aldatu zaigu. Edozeñek esaten dio laguntzeko. Ez dago lanerako.

AGUSTIÑE: Gogotik apaindu zaigu. Ezin bidali dezu orain aragi-billa ta onela. Morroia mendian da. Ez dakit nola antolatu bear degun.

MIEL-MARTIN: Gaur, beinik bein beste ollaxko bikoa erail zazu ta biar neroni joango naiz Loperenera.

AGUSTIÑE: Arraiz ere gaizki gabilta; Arrai-karraitzalleak erditan, gabe uzten gaitue. Ta D. Perminek ez du deus geiago jaten.

ORREAGA: *(Josten ari dan soñeko bat Salomeri erakutsiaz)* Soñeko au, arras ongi geldituko zaizu. Onela, tolesketik gabe obeki dago gañera.

SALOME: Zuri eskerrak, «Orre», jostun on ta merkea zerana. Bestela zer jantzirik ez nuen, ikastetzeko uniformeaz ez izanik.

ORREAGA: Zuretzako jostea gauza erreza da. Soñeko era guziak ongi erortzen zaizkitzu.

SALOME: Uniformez asperturik nengoen ba. Beti bat. Josten ere zerbait ikasten ari naiz.

ORREAGA: Udara nolabait igaro bear degu; bestela! au toki gogaikarria! onera ez da iñor etortzen. Ez degu norekin mintza, etxe-koarekin ezik. Ta Eneko ere beti kanpoan dabil. Ameriketara dijoan ortaz ez da gelditzen. Ta gaur aita datorreneko ez bada etxeratu, apaltzerakoan izugarria izango degu.

SALOME: Donestera partidua jokatzera goiz irten da; ta illuntzerako itzuli dala esan dit.

ORREAGA: Pia zaitte. Nere anaitxoia ez dezu nik bezin ongi ezagun. Illuntzerako e?... Eguna argitu arte ere Aldarregiko bentan egoten badaki gero!

SALOME: Ori bein gertatu zitzaion, Goitzuetarrekin zetorrelarik, automobilla gasolinarik gabe geldi zitzaielako.

ORREAGA: Zoaz egia jakitera. *(Lana utziaz)* Asperturik nago lan egitez! Aski degu! Ama etorri dedinean «Basaburuarra»ren billa aterako gara.

SALOME: *(Eserlekutik jekiaz)* Bagoazke bai. Ibiltzeko gogoia egin zait. Egualdi tzar oitaz ezin mendira joan. Otz dago.

ORREAGA: Ta beti langarra. Au udara! Deban, bederik, Motriko, Ondarrosa ta Zarautzera ibillaldiak egiten genituen, bañan emen! Eskerrak biok gaudela ta pianoa, radio ta irakurgaiak dituguna, bestela. Onera ez dator iñor. Birila gogaikarria ezik.

SALOME: Gaur ez digu ba gogait aundirik eman. Bazkalondoan osaba Kristobalekin atera da ta ez dira oraindik ageri.

ORREAGA: Betiraunean egoten al da San Birilaren antzo txoriari entzuten.

ORREAGA: Zure osaba ta biak ondo etortzen dira. D. Kristobal asko ikusia da ta bestea, asko... irakurria.



SALOME: Ez da berdiña. Nere osabak Santo Domingotik ekarriak soñeko batzuek ditu! Ango indiar-emakumezkoen jantzi ta pitxiak. Ez dakizu...

ORREAGA: Esan bear diot erakusteko. (*Izketan darraite*)

AGUSTIÑE: (*Bidezabaleruntz begiraturik*) Norbait badator ba... jantzi ez bes-telakoaz, bizkarreko saku ta guzi. Ez da ori emengoa; alemana dirudi.

MIEL-MARTIN: Eskalen bat izango da.

AGUSTIÑE: Ez, ez. Onuntz dator gañera. Gaztea da. Onela oñez ez diteke urrutira joan. Gaua emen igaro naiko du. Noan etxe barrura. (*Senar-enazteak etxe aldera abiatuaz*)

MIEL-MARTIN: Izango da norbait!... Ez digu zortziko aundirik utziko. Oñez dabilzan oiek!

SALOME: Eneko zetorrela uste nuen, bañan ez da bera.

ORREAGA: Nere anaiarentzako goiz da. Ura ez da azalduko gau erdirarte. Ta aita sutan jarriko da. (*Bideruntz begiraturik*) Oñez datorren ori «mendizale» edo dalakoa dirudi.

SALOME: Badakarki pixua bizkar gañean.

ORREAGA: Alare! Norbait azaltzen danean...

II. AGERRALDIA

Lengak eta Peli.

(Peli gizaseme gazte ta egokia. Bizkaitarra; ikaslea ta mendizale talde baten buru. Naparroako iparraldean oñez dabil euskal anaitasuna zabaldurik. Mendizale janzkera dakar eta motxila aundi bat, bizkar gañean. Bidezabaletik dator eta larrañera eldutakoan zalantzan geldi bedi; gero, bi neskatillak dauden aldera arturik)

PELI: Arratsaldeon! Esango daustazue, arren, etxe au, Hotel Basaburua dan ala?

SALOME: Bai jauna bai, au dezu.

PELI: Eskerrik asko. Lengo egunean Iratxe'tar Birila jaunak alkarregaz Aralarko San Mikel-en gintzatzala, Hotel Basaburura etorteko esan eustan eta...

SALOME: D. Birilari eskerrak eman bearko dizkiogu egiten digun «propagandarengatik».

ORREAGA: Ta San Mikeldik al zatoz zama ori guzia gañean dezula?

PELI: Gaur bai. Zer ba? Bazkal ostean urten dot.

ORREAGA: Ibillaldi luzea egin dezu.

PELI: Au ez da bapez. Lau egun daroiadaz ibiltan eta oindiño beste amarreko bidea gelditen yat.

ORREAGA: (*Karraxi agiriez*) Ui! Ederki nekatuko zera!

SALOME: Lertu!

PELI: Bapez! Tira, apur bat.

ORREAGA: Zu Mendi izale orietako bat izango zera, Bizkaikoa edo...

PELI: Asmetan dozu. «Bidez-bidez» aldraren buruzagia nozu.

SALOME: Bilbotarren bat orduan.

PELI: Ez. Ez naz «txinbo». Ta zuek «emakumetarikoak» zarie ala?

SALOME: (*Parrati ezin eutsizik*) Ja, ja, ja!

PELI: Nigatik barre egiten dozue; euskeraz txarto berba egiten dodalako edo. Gitxi dakit, euskaldun barria naz-ta.

ORREAGA: Au edozer gauzarengatik parrez asten da.

SALOME: Izan ere gaur zoroagoa nago. (*Peliri*) Barkatu...

PELI: Azketsi esan daroagu bizkaitarrok. Zeuri atsegin aundiagaz gañera.

ORREAGA: Gutxi dakizula bañan guri erakusteko aña bai.

PELI: Ikasi, ikasi egin gura dot. Ez daustazue esan «Emaku-abertzalle batzakoak» zarien ala ez.

ORREAGA: Ori askotxo jakitea da asierarako.

SALOME: Lenengo atsedean artu bear dezu, nekaturik egongo zera-ta.

PELI: Nekua baño zizkindua. Zuekin berbetan nagola aztu yat etxe ontan ostatu emango dausten itandutea. Txukunteko gelaren bat be izango dabe edo...

SALOME: Sartu aurrera, sartu! (*Miel-Martini deituz*) Aita! Jaun onek gau ontako gela bat nai du. D. Birilak igorria dator. Euskalduna da.

MIEL-MARTIN: (*Agurtuaz*) Ongi etorri. Zuretzako aiña leku ta zer jana ere izango degu.

PELI: Eskerrik asko. Ea ba, au itzita (*Motxilagatik*) bideko autsak kendu bear dodaz.

MIEL-MARTIN: (*Motxila kendu naiez*) Eramango dizut.

PELI: Eskerrik asko. Nere bizkarrean ederto doa.

MIEL-MARTIN: (*Ateraño joanez*) Aintzina ba. Aurrera! (*Igarotzen uzten dio*)

PELI: (*Sartu autetik neskatillei*) Gero alkar ikusiko degula uste dot?



ORREAGA: Naita nai ez. Lo egitera ez bazoaz beintzat. Emen ez dago bestela nora joanik.

SALOME: Lenengo aparia da. Bederatzietan.

PELI: Ez dot apaldu barik gelditu gura. Gose naz. (*Sarturik*) Gero arte!

III. AGERRALDIA

Orreaga ta Salome.

ORREAGA: Ori da uste gabe udazale bat etortzea. Nundik erori ote da?

SALOME: «Txinbo» bat nundik: pikondotik.

ORREAGA: Mutil atsegiña dirudi ta jatorra.

SALOME: D. Birilari par egiten diogu bañan, berari eskerrak etorri zaigu zera... txinbo ori. Ez dakigu izenik. Zera... Birilaren txoria edo...

ORREAGA: (*Parrez*) Galdegingo diogu.

SALOME: Zertarako? Biar baldin badoa...

ORREAGA: Gaur galdetu.

SALOME: Interesa artzen dezula esango nuke.

ORREAGA: Jakin naia edo... Ez ba. Goazen barrura ostutzen asi du ta zamarra artu bear det.

SALOME: (*Maliziz*) Ortara bakarrik?... Goazen bai... (*Abiatuaz*) Zer izen duen ere aguro jakiten al degu.

ORREAGA: Ez dit ajola aundirik. Gaztea dirudi, estudiantea edo.

SALOME: Nik itsasontziko pilotoaren antza ematen diot.

ORREAGA: Kapitan pilotoa?... (*Bijoaz*)

IV. AGERRALDIA

Kristobal eta Birila.

(Mendi aldetik datozela)

BIRILA: Arratsaldea ongi bota degu. Berriz ere Larrezurietara joan bear degu. Billa nabillen treku arria an arkituko dedala badakit; bestela ere egurastaldi polita da.

KRISTOBAL: (*Izerdia igurtziaz*) Polita baño geixeago. Zu gazte ta ariña zaude oraindik; nik ordea urte asko ta zama aundia gorputzean.

BIRILA: Ez da orrenbesteraño; aundiagoak ziran antziñako gizonak.

KRISTOBAL: Zure aldean bai. Zuk nik baño berrogei kilo gutxiago dituzu gero gerri inguruan.

BIRILA: Neurtzen al ditugu ezurrak. Neretzako gaurko ibillaldia arras erakusgarria izan da. Goñi'tar Teodosioren aztarrenak ez dau dela urruti uste det. «Kromletx» aien inguruan. Kromletx ura bai!

KRISTOBAL: Ero guziak ez daude Zaldun (Zaragoza). (*Beatza bekokira eramanez*)

BIRILA: (*Oarkabe*) Ez beste batzuek Berueten ere badira. Iontza-ko iturritik Oringo lepora igo, andik urbil Otsola aldera... Urrengo batean joaten al gera...

KRISTOBAL: Joaten al zera bakarrik. Zuri aztu egiten zaizu irurogei urte ditudala ta orietatik berrogei Antilletako giro epel ta belaskan, iragana naizena. Nekaturik nago. (*Eseri bedi*) (*Isilunea*)

BIRILA: Amerika aitatu dezun ezkerre, Santo Domingoko zenbait berri galde egin bear dizkitzut. Lengo egunean esan zenidan...

KRISTOBAL: Ameriko Vespuccio izan nai al dezu?

BIRILA: Zuri, Izpizuak Colon euskalduna deituko ziñuke.

KRISTOBAL: An lur artu zuan ezkerre, amaika gauza gertatu dira. Itzegiten asiko banintz, pizka baterako banuke.

BIRILA: Nolakoak dira Dominikatarrak?... Ango emakumezkoak.

KRISTOBAL: Badira bikañak, indio ta beltzen nasketakoak batez ere. Indio nagusiaren alaba bat ezagutu nuen... Aren begitartea!

BIRILA: Oroitz ona utzi zindula dirudi inditar arrek.

KRISTOBAL: Ta zerbait geiago ere bai. Emakumeak (*Jeikiez. Esandakoaz damuturik*) Beste egunen batean jarrai bide degu. Izarditua nago ta aldatzera noa.

BIRILA: Emakumeai buruz nik ere biotza zabaldu bear dizut.

KRISTOBAL: Ozkiro dago. (*Abiaturik*).

BIRILA: Badakizu Orreagari agertu nai nioke nere maitasuna ta ezin asmatu det.

KRISTOBAL: Noiz nai garaia dezu.

BIRILA: Ezin arrapatu bait det bakarrik. Uzkur egiten dit. Ez dakit nerekin zer duan. Udara guzian emen nabil ta igesi dijoakit.



KRISTOBAL: Eiztaria txarra zera orduan. Goazen barren ortara, sarea nola jarri esango dizut. Baratzan itxoin zaidazu; gure erle ta oilloak zer egin duten ikusi bear degu.

BIRILA: Zoritzarrekoa naiz D. Kristobal. Ameriketan emakumezkoak nolakoak diran ez dakit, bañan emengoak...

KRISTOBAL: (*Sarturik*) Toki guzietan berdiñak. Ausartu zaitte lenbaitlen, bestela... Mutilzar!

V. AGERRALDIA

Agustiñe eta Itziar.

(Itziar erri aldetik dator; Martiñe berriz etxeko lanetan dabilela-ta belenaren aldetik edo agertzen da).

AGUSTIÑE: Elizara joan etorria egin dezula?

ITZIAR: Bai ta berandu nabil. Eliz atadian Malengoneko Katalinekin bildu naiz, ta, asi ezker, noiz amaitu ez bait du jakiten.

AGUSTIÑE: Itza ta pizza izaten du andre orrek. Erriko berri guziak naasiko zizkion.

ITZIAR: Azkenerako, bakarrik utzi egin bear izan det, senarraren billa nentorrela esanaz, bestela...

AGUSTIÑE: An zauka oraindik.

ITZIAR: Nun ditugu Orreaga-ta?

MARTIÑE: Etxean edo daude. Arestian sartuak dira. Orain dala gutxi arte emen egon dira biak beren oial, esku-lan ta josketaz. Aizpak bai liran eraio dira (konpondu) alkarren artean.

ITZIAR: Bai bear ere, ez litzake besterik palta. Eneko ez zan etxeratuto, jakiña?

AGUSTIÑE: Ez det uste. Beste gizaseme bat etorri zaigu; gauerako gela eskatu du. Entzun dedanez Bilbao aldekoa ote dan...

ITZIAR: (*Naigabeturik*) Gure semea ez, gañerako guziak badatoz etorri. Ai ene! mutil orrekin alperrik da. Gaur aita emen izango dula jakin, etxean zer nolako naigabeak dabillzkigun, ta alare! Bereak aundiagoak! Ameriketara doan aitzekiz ez dio ezer ajolarik.

AGUSTIÑE: Nunbait abiatu aurretik bere burua ongi egurastu nai du. Goizean-goiz irten da beintzat.

ITZIAR: Ez dakit zer egingo niokan... Udarra ontan igaro arazten ari zaidana. Ez bait du balio ondo esanak (*Sotinka*) Ta azkenik... Seme bakarra... Ameriketara! (*Isilunea*)

AGUSTIÑE: Alaba gelditzen zaitzue...

ITZIAR: Egia da, bañan nork daki gurasoen ondoan noiz arte bizi izango dan. Zartzarorako laguntza ederra.

AGUSTIÑE: Guk Salomerekin izango deguna.

ITZIAR: Nera senarra iritxitakoan, semea ez dala etxeratu ikusi dezanean izugarrizko ixkanbilla sortu bide digu.

AGUSTIÑE: Or dezute Kristobal baretzeko. Ark artzen dio ongi neurria D. Permini.

ITZIAR: Oraingoan neurri guziak puskatuko dira etxe ontan (*Urduri*) Ni Orreagarekin Akarregira noa senarraren billa. Bitartean mutil ori azaltzen baldin bada, esaiozu, arren, bidera irten dedilla. Zeorrek igori ezazu bestela...

AGUSTIÑE: Bazoazkete kezkek gabe, esango diot.

ITZIAR: Ez dakit neskatz oiek barne ortan zertan ari diran. (*Otsegñez*) Orreaga!! Orre! Paper zarrak irakurri...

ORREAGA: (*Barrundik*) Banoa ama!...

ITZIAR: Tira aguro! Berandu da-ta.

AGUSTIÑE: Arratsalde guzian lan egin dute, bururik jaso gabe gero, Donostiko jaietara apain jua nai dute nunbait.

ITZIAR: Ez gaude aurten pestetarako.

VI. AGERRALDIA

Lengak eta Orreaga, Salome ta Birila.

ORREAGA: Ez gendun uste erritik etorria ziñanik.

SALOME: Ez ba.

ITZIAR: Esandako orduan, garaiz etortzen naizela badakizu.

ORREAGA: Emen geunden gu ere.

BIRILA: Bai Doña Itziar, ni lekuko. Egia dala ziñ egiten dizut.

ITZIAR: Zu beti eskribau. Ajola gutxiko uskerian astian galtzen ari gera.

BIRILA: Uskeritan ere egiaren alde: «ad veritatem».



ITZIAR: Egi larriena berandu gabiltzala ta Permini Akarregin iñork ez diogula itxoingo.

BIRILA: Ori bai ezetz. Nik laguntzen zaituet. Asko ibillia naiz gaur, eta nekaturik nago, baño On Permini ongi-etoria egitera joan ez? Iruñako berriak jakiteagatik bederik...

ITZIAR: Berri txarrak guretzat. Enekorentzat Ameriketarako ontzi-txartela sakelean dula etorriko zaigu-ta. Goazen. (*Malkoak dariz-kiola*).

ORREAGA: Amato ez zaite estutu. Ez zaitue semerik gabe uzten. Itzuli-ko da (*Abiturik*).

ITZIAR: Emen bizi dala ez dakigu nun dabillen eta... an Amerikan.

SALOME: Goizean-goiz joanda Aizarotzera arrantzara...

BIRILA: Ameriketara ere nun arrantza egiña izango du. Santo Domingora! Itziar, Kolonek lenengo azaldu zuan ugarte. Joango nintzake neroni ere...

ITZIAR: Noiz nai joateko azke zaude.

BIRILA: Ezin, Itziar. Teodosio Goñiren edestia amaitu bear det lenengo ta gero... (*Orreagari begiraturik*).

SALOME: Ezkondu... andregairen bat izanen al dezu.

BIRILA: Oraindik ez.

ORREAGA: Ba al goaz ala ez?

BIRILA: Ez det izan aztirik.

ITZIAR: Ez guk ere emen geldirik egoteko. (*Agustiñeri*) Agustiñe! Ez aztu nik emandako aginduaz.

AGUSTIÑE: Bai andrea, bai. Joan bear dunak egotea kalte.

ITZIAR: Ez al zatoz, Xalo?

SALOME: Etxean zeregin aundia dago ta laguntzen gelditzen naiz. «*Ixe-kaz*» Birilaekin aski dezute.

ORREAGA: Zuretzako bai!

ITZIAR: Gero arte ba!

BIRILA: Onelako egunak ez luteke amaitu bear. (*Bijoaz Itziar, Orreaga ta Birila bidetik; ta Salome etxera*).

VII. AGERRALDIA

Miel-Martin ta Agustiñe

MIEL-MARTIN: (*Etxetik irtenik*) Billbotar ori egarririk etorri da. Dagoeneko sagardo bonbil bat uztu du.

AGUSTIÑE: Nekearen egarria, oñez orrenbeste bide egin ondoren ez da arritzekoa... Gero Loperenera joan bear dezu biar esne geiegi eskarri dezatela esatea.

MIEL-MARTIN: Bai, joaten al naiz. Bazoazke barnera gazte ori beti zerbaiten eskean ari da-ta. Oraintsu bañua artzera sartua da. Ur otza besterik ez duala esan diot.

AGUSTIÑE: Garbitu ta izardia kentzeko ez du geiago bear.

MIEL-MARTIN: Orrek orde. Etxean ditugun gauza guzietatik bear du. Asteko periodiku guziak eramateko ez dit eskatu ba? Gero ere izanen du beta!

AGUSTIÑE: Azken berriak jakin naiko ditu-ta.

MIEL-MARTIN: Zeorrek eraman zaizkiotzu ba. Kristobal ari da irakurtzen. (*Isilunea*)

AGUSTIÑE: Gizarajoa lertuta eldu da gaurko txangotik. Ez dakit zertarako joaten dan D. Birila orrekin.

MIEL-MARTIN: Gazte dagola uste bait du. Orduan, Loperenera gerora gabe jauzi batean urbiltzera noa.

AGUSTIÑE: Ta ni sukaldera. Iñaxi bakarrik ezin utzi diteke. Ta Salomeri... ezin esan lezaioke lan egiteko...

MIEL-MARTIN: Maistra egin dan ezker, zerbait aldatu da. Kristobalek jakingo du zertan ari dan.

AGUSTIÑE: Alperrik galtzea. Diru geiegi ematen dio. Soñekoz egin du aurten! Errian esango dute berriz ere...

MIEL-MARTIN: Esan dezatela nai dutena. Geienaz ere egia azalduko da. Gu ongi gaude ta obeto oraindik ostaturik gabe. Ala bale-di, ez nuke orain Loperenera esne billa joan bearrik... (*Dijo-alarik*)

AGUSTIÑE: Zoaz ixillik, alperra, ondoegi bizi zera-ta.

VIII. AGERRALDIA

Agustiñe ta Eneko

ENEKO: (*Agustiñe etxera sartzerako dijoana ikusirik*) Etxekoandre! Gaur illundu aurretik nator.

AGUSTIÑE: (*Itzuliaz*) Ori esan. Zu al zera? Ara! Obe dezu etorri zerana.

ENEKO: Apaltzeko gogoz gañera. Goserik nago.



AGUSTIÑE: Ori bear degu ba. Zure ama-ta Akarregira oraintxe joanak dira... Aita, Iruñatik gaur datorkizuela badakizu ta zure amak esan dit bidera irten zaiteala.

ENEKO: Irten?... Geiago ibiltzeko nekatuta nago.

AGUSTIÑE: Zure amak esan duanean... Badakizu ba.

ENEKO: Bai, bai. Geroxeago joango naiz.

AGUSTIÑE: Ea zintzooa zeran ba. Ni sukaldera noa. Oi baño jende geiago gera apaltzen-eta. (*Bijoa*)

ENEKO: (*Oldozti*) Neretzako azken aparria edo... (*Agustiñe eskutatu dalarik, Enekok goiko leio aldera begira beza, ondoren ximiko batzuek egiñik. Gero, unetxo batean, Xalo agertu bitartean, batetik bestera dabil*).

IX. AGERRALDIA

Salome eta Eneko

SALOME: (*Atean agertuaz*) Gau erdirarte ez ziñala etorriko etsita nengoan.

ENEKO: Etxe ontan goiz etortzen naizenean, guziok arritzen zaizkit.

SALOME: Goiz?... Bai, arras goiz...

ENEKO: Alperrik nuen lenago etortzea. Ama, arreba, D. Kristobal, Birila, oro bat! Ezin mintza izango ziñan elkarrekin. Orain Akarregira joanak dirala badakit.

SALOME: Aitzeki polita.

ENEKO: Polita zu zera, Xalo! (*Maite egiñaz*)

SALOME: (*Asarre antzean*) Zer egin dezu egun guzian orain arte?

ENEKO: Amorraitan ibilli ta... zutaz oldoztu.

SALOME: Baita zera ere! Amorrainak nun dituzu ba?

ENEKO: Ez dute kanpora atera nai izan. Ibaian gelditu dira.

SALOME: Ez dizut deus sinisten. Arraitzako Bentan bai izango ziñaten bazkaltzen.

ENEKO: Nunbait bazkaldu bear. Orregatik etorri naiz zintzo etxera apaltzera.

SALOME: Zure ama beldur zan ez ote ziñan garaiz etxerutzen.

ENEKO: Ama beti da beldur enekin. Seaska-aurra naizela uste bait du...

SALOME: Zakarra zera zure amarekin. Kutunena zaitu, ta zuk berriz nai-gabez besterik ez diozu ordaintzen. Amarekin onelakoa baldin bazera, nerekin ere...

ENEKO: Zurekin?... Orain orrenbeste errita egiten didazunean, zer ote gero ezkon gaitezenean?...

SALOME: Begira... ez bazera aldatzen, ez naiz zurekin ezkonduko.

ENEKO: Aldatu?... Ameriketatik itzuli nadinean, aldatu naiz. Amerikano bihurtuko naiz.

SALOME: Ara bazoaz bion arteko maitasun au aztutzea obe degu.

ENEKO: Ameriketatik laister itzuliko naiz, emakume! Joan-etorriko-txartelaz bait noa...

SALOME: Noiz ordea?

ENEKO: Gaur jakiten al degu eguna... Aitak omen dakar txartelaz-ta.

SALOME: Guzian biotz-minaren aundia!

ENEKO: Aitak bidaltzen nau.

SALOME: Asper-asper egin dezulako.

ENEKO: Ni ere estudiantez aspertu nintzan ba ta Santo Domingon lan egiñik zurekin ezkontzeko diña diru irabaziko det.

SALOME: Noiz izango ote da ori. Emen gelditzea obe zenuke.

ENEKO: Nere aitak asmo bat artzen duanean... (*Isillunea*) Bidera irten beariko natzaio ama aserratu ez dedin...

SALOME: Ni barnera noa berriz... Oi! Osaba dator! Noan. (*Alkarrengandik bereziaz*)

X. AGERRALDIA

Lengoak eta D. Kristobal

KRISTOBAL: (*Sarturik*) Gazteak gaztea arkitzen du. Bazaudeztela... (*Ene-kori*) Gaur goiz zabiltz, Eneko...

ENEKO: Emen, ni berandu etortzeko gogoa dagola dirudi. Gaur aita datorrela-ta...

KRISTOBAL: Bai, baita!... Nun ziñaten?

ENEKO: Ibain arrantzan. Arestian eldu naiz.

SALOME: Amorrainik gabe.

KRISTOBAL: Ori ez dago esan bearrik. Apaltzeko gogoa ekarriko zendun-ta tira!

ENEKO: Zerbait; ori ere ez dago galdetu bearrik.



KRISTOBAL: Emen biok ongi zaudete. Ni zure aitari ongi etorria ematera aurreratzera noa. Onuzkero bide-erdian datoz, garaia da-ta. Ea zer dion, D. Perminek.

SALOME: Doña Itziar, Orre ta Birila aspaldian joanak dira.

ENEKO: Ni zurekin noa Don Kristobal. Gaur goiz etxeratu naizen alde-tik zintzo jokatu bear... Goazen.

KRISTOBAL: Ederki. (*Salomeri*) Zu ez al zatoz?

SALOME: Ez osaba, emen geldi bear det. Gaur apaltzen lagun asko bait gera, ta amari laguntzeko. Maia gertutzera noa.

KRISTOBAL: (*Atsegñez Salomeri begiraturik*) Orrela, neskatx etzekoiak, orre-la. Ea aparti ona ematen diguzuten. Goseturik gaude-ta. Ez al da onela Eneko?

ENEKO: Bai, jauna, bai. Barabarrak jateko gogoia egin zait. Ameriketara ez bait ditut jango...

KRISTOBAL: Mutil, an ere ez aiz goseak ilko.

SALOME: Emen gutxiago, osaba. Gaur zuen gogoko aparta degu.

KRISTOBAL: Ikusiko degu.

ENEKO: Ikusi bakarrik ez. Irentsi!

KRISTOBAL: Salome! Kontuz onekin jango zaitu bestela. (*Abiatuaz*)

SALOME: Ez naiz ain samurra.

KRISTOBAL: Zoaz ba eginkizunetara. Gu bide erdira goaz. Autoa garaiz etorri baldin bada, onuzkero laister eltzen al dira.

ENEKO: Don Birila or dute berekin eta guziok geldi araziko ditu.

KRISTOBAL: Zeorri ere ez zera asko mugitzen. Geldirik edo ote zauden.

SALOME: Ez neregatik. (*Bijoa*)

ENEKO: Goazen, goazen! (*Ixekaz*) Aitaren beldur...

KRISTOBAL: Ator, ator, mutil... (*Bijoz*)

XI. AGERRALDIA

Salome ta Peli.

(Lenengo, eskaratz barnean daudela itz jarduna entzun bedi gero etxe aurrean azaldurik)

PELI: (*Jantziz aldatuta ta oso txukundurik*) Zelan izena dozun badakit, gazte: Salome!

SALOME: Aguro esan dizute.

PELI: Oso jakin-gura naz-ba.

SALOME: Gero emakumezkoengatik esango dezute «kuriosoak» gerana.

PELI: Ene ba! Ez dautsut orrelakorik esan. Salome deritzazula baiño.
Orain zure aiztearen izena jakin gura neuke.

SALOME: Aiztea?...

PELI: Aizpa!

SALOME: Nork esan dizu aizpa dala?

PELI: Lengusiña orduan?...

SALOME: Ezta!... Adiskidea besterik ez.

PELI: Ta adiskidetxu orrek nola deritza?...

SALOME: Gauza geiegi galdetzen dituzu.

PELI: Jakitearren itaun egin bear. Ez dot iñor ezagututen-eta.

SALOME: Bada nere adiskideak «Orreaga» du izena.

PELI: Izen polita.

SALOME: Politagoa nerea baño, ez da ala?...

PELI: Estuasun ederrean iminten nozu. Izen biak politaren-politarenak dira-ta aingeruenak legez.

SALOME: Eskerrik asko, badakizu losintxatzen, Errolando zaldunak aña.

PELI: Ez orrenbeste. Peli Bilbao naiz agindu gura dozunerako.

SALOME: Ni Salome...

PELI: Ta bestea?...

SALOME: Ura begititik sartu zaizula dirudi.

PELI: Itsua ez naz-eta.

SALOME: Ea itsutzen zaitun ori, Orreaga Mezkiriz ote dan.

PELI: Mezkiriz?... Abizen ortako lagun bat Madriden izan neban.

SALOME: Auek Iruñakoak dira ta udara igarotzen daude emen.

PELI: Nere ikasle laguna be, naparra zan: Iruñxeme.

SALOME: Abizen ortakoak Napparroan anitz dira.

PELI: Nere laguna ez bestelakoa zan: mutil jatorra, adiskide ona, bañan baita be ezagun izan dodan ikaslerik nasaiena. Aste osoak ikastetxera agertu barik egoten zan... A!... Eneko!...

SALOME: (*Arriturik*) Bai e?...

PELI: Zerbait jazoten yatzu ala? Larri zagoz.

SALOME: Bai, ama itxoiten daukat. Barkatuko didazu bañan nere zer-egiñetara joan bear det.

PELI: Orixen da bat-bateko joan-bearra neu bakarrik itzita. Esandakoz asarretu egin zarala dirudi.



SALOME: Ez, ez, bañan... badatoz guziak. Emen dira! Ta tartean zure lagun Eneko ere bai. Banoa!... Agur! (*Laisterka bijoa*)

PELI: (*Arriturik*) Baña zu?... (*Darraikiola*) Alde egin daust?... (*Larrañaren erdira ateriaz*) Ta Eneko Mezkiriz emen dala diño. Bidetik jendea dator bai... Ez neban asko uste. Baña... Bera da-ta. (*Datorrenaren alderuntz joanaz*) Eneko!...

XII. AGERRALDIA

Peli, Orreaga ta Eneko.

(Anai-arrebak datoz. Peli ikusitakoan, Eneko aurreratu bedi besarkatzera).

ENEKO: I emen? Peli aspaldikoa!

PELI: Eneko! Aralarko San Migeldik naiatork, mendiz-mendi. Zelan ago i?

ENEKO: Argalean sendo. Gero esaten al dizkiat guziak. Emen udara nola-bait igarotzen.

PELI: Neuk, orain iru egun urten neban Billbotik eta ibillaldia egiten Auri-tzeraño noiak...

ENEKO: Nik ere laister ibillaldi luze bat egin bear diat. Oso ta luzea: Ameriketara!

PELI: Ene ba! Zerbait oker yazoten yak ala?

ENEKO: Motel! Jakingo dituk. Lenago arreba agertu bear diat. (*Biok Orreagarengana urbildurik*)

PELI: Ire arreba? Lenago agurtu yuadaz bera ta bere laguntxo.

ENEKO: A bai! (*Orreagari*) Au dezu Madriden ikasle-lagun izan nuen Bill-bao'tar Peli.

PELI: (*Orreagari eskua estuturik*) Lenago elkar ikusi dogu ta orain ezagutuaz atsegin dot.

ORREAGA: Esker milla; nik ez dut txikiagoa.

PELI: Ez neban asko uste Enekoren arreba zintzanik. Ta gitxiago au (*Eneko bizkarrean joaz*) emen arkitzerik...

ORREAGA: Nik Enekor arestian esan diot «mendizale» bat etorri dala; bañan nor zitekean ez zaio bururatu.

ENEKO: Bururatu? Bai. Zororen bat. Auto ta aideplanoan ibilli bearrean oñez dabillena, zer nai dezu izatea!... Gaurko egunean!

PELI: I baño nagjagorik! Beti berdin!.. Eztakit mendiz-mendi ibiltearen ederra...

ENEKO: Ik erakutsi bide diak. Udara guzia Basaburuan zeramakiat-eta. Basoa ta mendia ez dituk toki txarra etzinda egoteko, iturri baten ondoan. Bañan alper gaiztoan gora ta bera ibilli... Ni beti erreka bera...

ORREAGA: Zu guzirako alper, pelotarako ezik. Ez dakit nola lotsatzen ez zeran. Mendia dan atsegiña. Mutil banintz, onelako ibillal-diak egingo nituke.

ENEKO: (*Irritsu*) Ez aiz bakarra, Peli. Laguna badek.

PELI: Ta ez txarra. Egoki-egokia baiño.

ENEKO: Ez intzake urrutira joango.

ORREAGA: Areago zurekin baño.

ENEKO: Neregatik bideak libre dituzute. Ezin sinistu diat ingurumai aue-tan ikustea.

PELI: Oso erreza. Billboko jaietan beti urteten dogu. Aurten Naparro begikora etortea erabagi gaiuan, zeuek biztutzen; Aralarko San Migelen gengozala, Orreagarañoko ibillaldiari asikera emoteko asmotan, an egoan jaun batek esan eustan, Basa-buruan Hotel barri bat egoan...

ENEKO: D. Birilak.

ORREAGA: Ez dago esan bearrik.

PELI: Ori bera zan. Jaun oso jakintsua; kondairegillea uste dot.

ENEKO: Bai, koipe jario ta gogaikarri ederra. Bestela nere arrebari galde-egin.

ORREAGA: Isilik zaude gizona, iñorengatik gaizki esan gabe.

ENEKO: (*Orreagarengatik*) Onek aldeztu egiten dik. Inguruan limurkerian bait zebillkiok. Loreak, goxokiak eta abar eskeintzen...

ORREAGA: (*Orreaga*) Eneko! Begira gero! (*Peliri*) Ez zaiozula jaramonik egin. Gezurretan ari da.

PELI: Neuk jaun orri eskerrak emon bear dautsodaz. Onela arkitu al izan aut. Bestela Lekunberrirako asmotan nintzoan.

ENEKO: D. Birila jakituri guziaz emen dek ba.

ORREAGA: Bai, gure ondoren, amatxorekin dator.

ENEKO: Mezkiriz sendi guzia ezagutuko dek. Aita jauna orain eldu zai-guk-eta.

PELI: Poztuten naz. Ederto, ederto. Eneko, nun izan az aurten?

ENEKO: Madriden edo... Irugarren aldiz kale eman zidatek eta bapoi!

ORREAGA: (*Bideruntz begira*) Ama ta Birila datoz.



ENEKO: (*Peliri*) Gero bakarrik gaudelarik kontako dizkiat.

PELI: Bai gizona.

ORREAGA: Aita ta D. Kristobal illundu ta gero elduko dira.

XIII. AGERRALDIA

Lengoak, Itziar ta Birila.

(Illuntzen doa)

ITZIAR: (*Semeai*) Aguro etorri zerate.

ORREAGA: Zuek astiro.

ITZIAR: Aita-ta atzean geldi dira oraindik.

BIRILA: (*Limurkeriz*) Gazteak etorri gera aurretik. (*Pelirengana joanez*) Gizona! billbotarra emen degu-ta. Etorria ziñala banekien. (*Eskua emanaz*) Nola zaude?

PELI: Ederto, zu be bai?

BIRILA: Ongi, ongi... Asmatu al dezu bidea?

PELI: Bai, bai, ta eskerrikasko toki ontara bidaldu nozulako, adiskide artea. Ez da ala, Eneko?

ENEKO: Au da uste gabeko gertaria, ama. Madriden izan nuen adiskidearik onena agertu bear dizut: Peli Billbao.

ITZIAR: (*Eskua eskeñiaz*) Poz aundia artzen det, oso pozerako ez bagaude ere. Zere etxean zaude.

PELI: Eskerrikasko, atsegin andiena neretako da.

ENEKO: Adiskide txarrekin biltzen nintzala zenioten beti, ta mutil on ta azkarrik bada nunbait, ona emen bat.

ITZIAR: Ainbat lotsagarriago zuretzat.

ORREAGA: Ez dezute elkarren antzik.

ENEKO: Guztiok ez gera berdiñak izaten... Au injenierotako gai izan ta ni ez.

ITZIAR: Ez dakit nola ez zeran lotsatzen ori esatez. Zure adiskideak karrera izango dute ta zuk baterez.

ENEKO: Ameriketarako «karrera» ama; amabost egun barru, bidean naiz. Ez erritan asi.

ITZIAR: Ez nuen bearrik izango zure lagunaren antzekoa izan baziña.

PELI: Eneko ez da ikasle txarra; orraitño beste karrera autu bear eban ta ez injenierotakoa. Nire ustez, beñepein.

BIRILA: Nere iritzia ere orixe zan, badaki Don Perminek. Mutillak millitartzako asi bear zuen. Armetako bizibide omengarria.

ORREAGA: Karabinero!... Ez degu olakorik bear gure artean. Zoaz zu ezpata artzera!

ITZIAR: Berandu da, ba. Nere senarrak asmo bat artzen duanean alperrikakoa da ari zerbait esatea.

ENEKO: Nik det arrazoi orduan...

ITZIAR: Isilik zaude. Zuk dezu erru guzia-ta.

ITZIAR: Ta sin lasai gelditzen zera. Ez det itzegin nai geiago, orretzek nairgabeak aunditzen dizkit-eta. Goazen goazen barrura. Etxean itxoingo diegu Permin eta Kristobali.

BIRILA: Ongi diozu Doña Itziar, lasaitu zaite. Sartu gaitean etxeko epele-
ra, otz antza degu-ta. Permin-eta urbil utzi ditugu baño...

ORREAGA: Gelditu egingo ziran berriketan.

ITZIAR: Sartu gaitean otz-antxa dago bai. (*Abiatuaz*).

BIRILA: Ta illuntzen asia. Udara bera bait dijoa.

ITZIAR: Aparitako gogoa egingo zitzaigun orrenbeste ibilli ta gero. (*Peliri*)

PELI: Bai andrea, bai; Txanton Piperri baizen goseti nago.

ENEKO: Ezkurra ugari dek median, motel!

ITZIAR: (*Orreagari*) Apari ugaria gertutzen leiatuko ziran noski? Lagun geiago gera gaur apaiten.

ORREAGA: Agustiñek badaki; Salome ere laguntzera joan zaio. (*Etxera sarbitez. Itziar, Orreaga ta Birila lenengo; Eneko ta Peli ondoren*).

XIV. AGERRALDIA

Permin eta Kristobal.

(Bide aldetik agerturik)

KRISTOBAL: Ontzia Bartzelonatik il onen 24n irtezen bada, emendik, bi egunez aurretik joatea aski degu.

PERMIN: Ez al da berandutxo izango?... Eragozpenen bat jarri lezaioke-
te-ta.



KRISTOBAL: Ez gizona! Agiri guziak berekin daramazki; baimen guziak baditu. Itxasontzia arratsaldean abitu da.

PERMIN: Orren berri zuk dakizu ondoenik. Zure gain uzten dizut semea Kristobal. Orrenbestez guzia esana dago. Ez ni ta iñor etxekorik ez det nai diosalik egitera joatea. Azken agurra garratza izango bait litzake. Nere emaztearentzat batik-bat. Oartu gabe joan balitzaiguke, ainbat obe... Nun ote da bera?

KRISTOBAL: Ez da artañoa. Gaur egunean Ameriketara joatea jolas bat da. Oraingo ontzi aundi ederretan...

PERMIN: Ori diot nik ere. (*Deituaz*) Eneko!...

KRISTOBAL: Orain berrogeitamar urte gu joan giñan bezela joatea besterik zan. Ezer jakin ez, ta dirurik gabe.

PERMIN: Ala da bai. Azkenengo aldiz diozut, Kristobal; nere semea dala-ko ez dezazula begiraben geiegi izan Enekorekin. Beste mutillai aña lan egin arazi-zaiozu; ta nai ez badu etxetik bidali! Ogia irabaztea zer dan ikasi dezala.

KRISTOBAL: An lan egingo du. Ziur nago. Ez bait dago emengo okasiorik. Bein oituz geroz, diru pixka batekin etxeratuko zaizu.

PERMIN: Aberastua ez bada, gizon egiñik beintzat. Ori det naia.. Ta eskerrik asko zuri, egiten ari zeran guziagatik.

KRISTOBAL: Ez da ezeri gizona.

PERMIN: Nun sartu da mutilla?... (*Kartera ateriaz sakeletik*) Emen det ontzi-txartela. Diru asko kostatzen zait eta naigabe geiago. Mutillaren onerako baledi...

KRISTOBAL: Bai. Ameriketan bizitzen ikasiko du. Guk ikasi genduen eta...

PERMIN: Zuek bestela oiturik joan ziñaten.

KRISTOBAL: Ez genduen ezagutzen. Euskalerria besterik.

PERMIN: (*Itzal aundiz, sakaletik txartel bat ateriaz semeari*) Emen dek Ameriketarako txartela. Gaurgero jaun onen esanera jarri bear dek. On Kristobal dek ire nagusia.

ENEKO: Bai jauna, bai.

KRISTOBAL: (*Permini*) Mutilla etxean bezela izango da. Lan egingo du ta aurrera aterako degu. (*Enekorik*) Ez da ala?

ENEKO: Egiñalak egingo ditut beintzat.

PERMIN: (*Biguntzen asia*) Noizbaitean zentsuz mintzatzen asi bear uan. (*Biotz berago*) Kristobal! Zure eskuetan uzten dizut seme bakarra...

OIALA

XV. AGERRALDIA

Lengak eta Eneko

ENEKO: (*Burua makurturik azalduaz*) Deitzen al zuen aita?

PERMIN: (*Ben*) Bai ta baliteke azken aldiz deitzea.

KRISTOBAL: Gizon illuna zaude. Ez orrela larritu zure burua.



IRUGARREN EKITALDIA

(*Antzektokian, bigarren ekitaldiko gerta-leku bera. Goiza da; eguraldi ederra*).

I. AGERRALDIA

Permin eta Itziar.

PERMIN: (*Etxetik irtetzen diralarik*). (*Urduri*). Gertu al dizkiotzute jantzi, soñeko ta mutillak bear ditun gañerakoak?

ITZIAR: Bai gizona, guzia gertu daukagu. Arropetan ez zan lenago ere urri ta orain erositakoaz aldi baterako baditu. Baulean sartuak daude. Ta an jarri bearrak min eman dit, ez uste.

PERMIN: Mutilla zer nolako tokietara dijoan kontuan artuko zenduten. Santo Domingo ez dala Basaburua. Lur beroak dirala aiek.

ITZIAR: Ez gara orren motzak Jeografin. Oso burugabeak egiten gaituzu. D. Kristobali galdegin diogu ango oituraz, bai jantzi ta abar...

PERMIN: Orduan, lenbaitlen dijoala, ez digu mutil orrek naigabea besterik ematen-eta. Orain bertan, Salome andragaitzat edo arturik dabilela jakin det. Ez dakit nun zauden gauza orik ez galerazteko.

ITZIAR: Oriek berriketak izango dira; Birilak esan dizkizun ipuiak. Bera ez da izan beñere andregairik egiteko din; ta norbait neskatxaren batekin badakus... zera...

PERMIN: Birila amaika andereñoek artuko lukete senartzat, ta nik ere pozik emango nioke alaba. Onela etxean izango genuke.

ITZIAR: Ez diot ezer kentzen Birilari; bañan ez nik alabarik emango. Ortan alabari aukera egiten utzi bear zaio. Ta gure Orreagari ez diot Birilarenganako zaletasunik arkitzen.

PERMIN: Ori gero ikusi bide degu. Gaurkoz semeak ematen dizkigu franko lan. Ezin eraman dedana Salome atzipetzen ibiltzea da. Jakin Ameriketara dijoana ta alaz guztiaz txorakerietan astia galtzen ari bear.

ITZIAR: Ez da orrenbesteraño; geiegizkoa zaude. Elkarrekin itzegiten ikusi dituztelako, eztaiak! Arritzeko al da etxe batean bizerik adiskide izatea?...

PERMIN: Adiskidetasun labaiñak dira oriek; bide txarrak. Geiago neskatxaren etxean dagolarik. Ez det nai Kristobal eta... etxeekin asarrereren bat izan dezagun.

ITZIAR: Jesus milla bider! Ori da zere burua naigabetu naia. Ez dezu ain ajola aundiko arazoa, gizona! Mutillari emen gelditzen zaizkion egunengatik.

PERMIN: Aski ta geiegi guri pakerik ez emateko. (*Asarre*) Alde egin dezala lenbaitlen!

ITZIAR: Gizajoak Ameriketara igaro bearke dituenak! Jaungoiko maitea!

PERMIN: Kristobalek aspertuta kalean uzten baldin badu bai. Bere egin bearra ongi betetzen badu an irabazpide polita dago. Esan diot Kristobali estu artu dezala.

ITZIAR: Ez Santo Domingon baizik, Guayanako presondegian sartu, nai dezula dirudi.

PERMIN: Ez dakit! Obe genuke itxasontzian sartuta balego.

II. AGERRALDIA

Lengoak eta Miel-Martin.

MIEL-MARTIN: (*Atean agerturik*) Gaur ez al dezute gosaldu bear?

ITZIAR: Aspaldi artu nuen nerea. Gosaltzeko al zaude oraindik Permin?

PERMIN: Bai, ta onuzkero berandu da. Ez det deus artu nai.

MIEL-MARTIN: Bañan, Don Permin! Eguardi arte baraurik?

PERMIN: Sarritan egiten det etxean ere.

MIEL-MARTIN: Naigabeengatik ez zaio jateari utzi bear. Txokolate ta guriña gertu daude ta Austiñeri ateratzeko esatera noa. (*Sarturik*)

ITZIAR: Bai, bai, ekarri zaiozute onera. Larrañean egoteko goiz ederra dago-ta. Goiz jeiki zera Permin ta jaten ez badezu berriz ere argaltzen joango zera.

PERMIN: Ez det gogo aundirik, bañan, tira! zure esana egiteagatik.

ITZIAR: Jakiña! bestela plakiak galduko zaitu.

PERMIN: Beste gaitzik ez banu... barruan gelditzen zait arra...



ITZIAR: Iltzearren ba!...

MIEL-MARTIN: (*Sarturik*) Badakarkizute gosaria.

ITZIAR: Emen degu gure Austiñe. Aurrera! Aurrera!

III. AGERRALDIA

Lengoak eta Agustiñe.

AGUSTIÑE: (*Bandeja gañean gosaria daramakila sarturik*) Aintzina! Aintzina!
esaten dute gure errien.

ITZIAR: Aintzina ba! gosaltzeko garaia da.

AGUSTIÑE: Egun on! (*Permini*) Emen du gosaria, nagusia.

PERMIN: Eskerrikasko, Agustiñe. Berandu da bañan, ekarri didazun ezke-
ro artu egin bearko. (*Mai ondoan eseri bedi*).

AGUSTIÑE: Ongi lo egin al du ba, Don Permin?

PERMIN: Ala-ola, Austiñe. Oso erdipurdi.

AGUSTIÑE: Etxen degun oeatzik onena gertu nizun ba.

PERMIN: Oeatzak etzun aitzekirik.

ITZIAR: Buruausteak, buruausteak!

MIEL-MARTIN: Lo egiteko lagunik txarrenak.

PERMIN: Gauz oitaz ari geran ezker, gure seme orrek, lenaz gañera nai-
gabe berri bat emango digu. Zuei ta guri.

MIEL-MARTIN eta AGUSTIÑE: (*Zalantzan*) Guri!!

ITZIAR: Ez da orrenbesteraño Permin. Usteko dute gutxinez...

PERMIN: Gutxi al da Ameriketara abiatzeko zorian egon eta alare zuen
alabari ezkon-itza ematea, Salomeri iruzur egiten ibiltzea.

MIEL-MARTIN: Ez bada ori besterik.

AGUSTIÑE: Gazteak zorok izan oi dira-ta.

ITZIAR: Emen basamortu ontan beti bakarrik ezin ibilliko zan eta Xalo
laguntzetik elkar gustatzea etorri da.

PERMIN: Garai onean. Gaur dator automobilla Enekoren gauzen billa,
emendik Iruñara eramateko; ta andik Bartzelonara. (*Itzia-
rri*) Beraz, utzi, utzi mutillari azken orduarte nai duan guzia
egiten...

ITZIAR: Banekien; nik erru guzia.

AGUSTIÑE: Mutilla, udaran ez da gaiztoa izan; zintzo ibilli da.

MIEL-MARTIN: Bai, bai; ez du lan aundirik eman etxean.

PERMIN: Noski, beti kanpoan, beti parrandan ibilli bait da. Umekerik egi-
ten.

ITZIAR: Onuzkero ez ditu ba asko egingo. Gelditzen zaizkion egunenga-
tik...

MIEL-MARTIN: Oraingo gazteak D. Permin, nola burutu!

AGUSTIÑE: Gure Xalo orrek ere, igaz mototza zeraman; aurten berriz
maistra egin zaigu-ta...! txoriak buruan!

ITZIAR: Ori beti onela izan da, gure amonen aldian, orain eta gero. Zure
ezkongai denboretara begiratu, Austiñe.

MIEL-MARTIN: Ez da gezurra. Onak ziran orduko neskatxak: «*mamijaleak
Basaburuko*».

AGUSTIÑE: Ara bestea! «*gaztajaleak Imozko*».

ITZIAR: Ortan, neska-mutillak, nun-naikoak ere, berdiñak dira. Gurasoen
itzal eta aolkua bearra dute gazteak ezkontzeko sasoi-
eltzen zaienean.

PERMIN: Orregatik zuei nere barrua lasaitu dizuet.

MIEL-MARTIN: Sinisten degu, D. Permin. Zaude kezkarik gabe. Semea
urteekin gizontzen joaten al zaizue.

PERMIN: Ez nuke il nai ikusi gabe.

ITZIAR: Orixe eskatzen diot Jainkoari Itziariko Amabirjiñaren bitartez.
Grazi ori iritxiko ote digu.

AGUSTIÑE: Bai, bai; etxean gauza ona ikusi duanak, goiz ala berandu...

PERMIN: Ala bear! (*Gaiz aldaturik*) Au onela dala, nun da gure gazte jen-
dea?... Ez dira oatzan izango?

AGUSTIÑE: Jeikiak dira aspaldi.

ITZIAR: Elizara joan-etorria egin dute-ta.

PERMIN: Mutillek ere bai?

ITZIAR: Ez dezu gauza txarrik besterik ikusten da. Neskatxak etxeko zer-
egiñetan ari dira.

PERMIN: Mutillak ez dira autsak astintzen ariko ba?

MIEL-MARTIN: Kristobalek baratzara eraman ditu bere landare, egazti ta
piztiak erakustera. Badu sail ederrik. Ortxe joango zaie
goiz guzia.

PERMIN: Kristobalekin itzegin nai nuen, bañan lanpetua dagon ezker, ba-
zkal aurrean arrapatuko det.

MIEL-MARTIN: Otsegingo diot, nai badezu.

PERMIN: Utzi zaiozu utzi; dagola! Egurasteko giro ona dago ta bitartean
ibillaldiriko bat ematera goaz. Ea Akerregiraño eltzen ote
geran.



MIEL-MARTIN: Ongi egingo dute; oñak ibilli ta burua arindu. Geienetan langarpean gaude. Gaur orratiokan eguraldi ederra dago. Ez bestelakoa!

PERMIN: Gero arte ba. (*Agustiñerekin jardunean ari dan Itziarri*) Amaitu al dezute?

ITZIAR: Zuek amaitzeko zai geunden.

PERMIN: Egurasteko gertu baldin bazaude...

ITZIAR: Ortarako beti prest nagona badakizu.

PERMIN: Goazen, ba Akarregeraño.

ITZIAR: Bai, bai beriala! Pozik gañera. (*Abiturik*)

AGUSTIÑE: Ondo egiña. Ea jateko gogo aundia ekartzen dezuten. Eltzeak su-baztarrean daude. Noan orain arraultz billa.

MIEL-MARTIN: Ta ni bide-ertzean larrean dabillen beia jasotzera.

ITZIAR: Laister gara emen. Kontu bei orrekin! (*Itziar ta Permin bide aldera dijoazelarik; eta Miel-Martin ta Agustiñe basoaldera*)

AGUSTIÑE: Ongi ibilli.

IV. AGERRALDIA

(Unetxo batean antzertokia iñor gabe. Gero ta urbillago lau bat bost bei orru entzun bitez eta ondoren oianeko abar ots eta zala-parta. Miel-Martin beia jarraikiaz bailebil antzertoki zoko alde-tik batetik bestera igaro bedi).

Eneko, Orreaga, Salome ta Peli.

(Ataritik irtezen diralarik)

ENEKO: Gure aita-amak alide egin duate emendik. Don Perminek errita ta Ameriketarako txartela, arratsalderako utziko zitun. Ez da ala, arreatxo.

ORREAGA: Txartela ez dakit, bañan errita, orduero ere ez zaizu geiegi.

ENEKO: (*Peliri*) Txinbo? Ikusten al duk etxean diaten fama?

PELI: Ondo merezia, bai, bai!

ENEKO: Aizak, ez nazak oinperatu. (*Xalori begiraturik*) Andregaia aurrean zegokala.

SALOME: Ori kirtena!

ENEKO: Zurea, ez didazu kale eman-eta...

SALOME: Zintzoagoa ez bazera, oraindik emango dizut.

ORREAGA: Garai onean, Ameriketarako ontzian zanko bat sarturik daukanean. Bart txartela ikusi nuen.

ENEKO: Arreba, ez gauza tristerik oroi arazi. Ai! Amets egin dut. Gaur beñepein egun ona iragan bear degu. (*Peliri*) Ta nork esan bear zikan, alkarrekin Basaburuan arkituko giñala?

PELI: Ez neuk beñepein. Tamalez ordu gitxi besterik ezin neikez igaro emen. Nire lagun bi itxaroten daukaz Belaten. Gaur arrastirako erdu bear naz ara. Berbaldiak doguz. Aberri-eguna gertuteko.

ENEKO: Napparoa gibelean atzera zegok motel; bazkalondoan joatea aski duk.

ORREAGA: Zu bai zaudela, gibelean ezik, lur azpian.

PELI: Arrebak, jauni yoak ederra. Laister urten bear dot astiro-astiro joatearren, toki batzuetan geratuaz.

ENEKO: Iru ordu aski dituk Belatera joateko; gaur azkeneko ikusiko gaituk eta...

ORREAGA: (*Anaiari*) Berak ekin bear dio bideari ta ez zuk.

PELI: Gelditzekotan ez uste iregatik geldituko nazanik; ez arreba ta adiskidetxuagaz luzarogo egoteagatik baiño...

ORREAGA: Eskerrikasko. (*Enekorri*) Ikasi urrerorako ao-eder izaten.

SALOME: (*Enekorri*) Au zu baño fiñagoa da.

ENEKO: Onuntz ez da uda guzian Birila beste galairik eldu ta zuek edozein limurkeri sinisten dezute. A sinisberak!

ORREAGA: Noski! Zure zakarkeritara oiturik bait gaude.

PELI: Nire euskera zakarrogua ei da. Gañera txarto egiten dot berbetan.

ORREAGA eta SALOME: Ez! Ez!

ENEKO: Biak ezetz! Peli! Emakumezkoei maite-itzak atsegiñen! Orain bai gelditu bearko aizena.

PELI: Guziok ao batez eskatzen dozuen ezkeru, zuegaz egongo naz eguardi arte. Orraitiño, bazkal ostean asti apur bat galdu barik, banoia! Orain gura dozuen tokira.

ORREAGA: Gañarbe oso polita da, ordu laurden bateko bidea dago ta ikusbegi ederrenetakoa.

SALOME: Elomendi ageri da ta sarritan Auñemendiko tontor zurituak.

PELI: Neuk zeuek ikusiagaz naikoa dot. (*Orreagarengana urbil bedi*).

ENEKO: Ori da zurikatzaile izatea. Adiskide ezitsuak ez baditut nik ba! Ezagun duk Madridentan izan aizena! (*Xalorengana joaz*)



SALOME: Baita zu ere, bainan ez dezu antz-aundirik.

ENEKO: Ona bestea, ez zera noski muxurdiñetako jai. Xalo! Ikusten al dezu Ameriketatik igorriko dizkitzudan kartak: gozuaren gozuak. An azukrea erruz, bait da.

SALOME: Urrutiko intxaurreak...

ENEKO: Urrutikoak bearko. Urbillean ez didazu musu bat bederik ematen uzten-eta...

SALOME: Ezta utziko ere!

ENEKO: Ortaz obe det laister Ameriketara joan.

ORREAGA: (*Xalo ta Enekor otsegiñaz*) Gañarbera ba al goaz?

ENEKO: (*Entzungor egñiik*) E?...

PELI: (*Orreagari*) Gogo andirik ez dabela dirudi. Nagi andi orrek!

ENEKO: Egitan. Gañarberaño igotzeko alperturik nago. Obe degu pagadira, itzalean etzitera joatea. Gero ere eguzki ta bero ederrrik pasa bearko det Ameriketara.

ORREAGA: Alperrontzio! Zu beti etzinda egongo zifake. Norabait joan bear badegu, bagoazke!... Berandutuko zaigula bestela.

SALOME: Goazen, gaurgero.

ENEKO: (*Nagiak ateriaz*) Ala! Ala! Nor lenago eldu! (*Korrika abiaturik*) Aurki!

PELI: Zuek aaztu zarie Birilak itxaroteko esan dauskula?

SALOME: Orri igesi egiteagatik alde egin bear degu ba. Beti gañean degu bestela.

ORREAGA: Ez aiatu. Gogaikarriagoa da gixaxoal Azkar ez bagoaz...

ENEKO: (*Geldi-araziaz*) Zaudete, zaudete. Ori da eskergaiztokoak izatea. Gizona beti zuek eroskiletara konbidatzen; beti laguntzeko gertu, ta zuek uzkur ta destaña. Oraingo andereñoak oso arreak zerate.

ORREAGA: Zuri beñepin ez lizuke iñongo neskatxak aurpegira begira bear. (*Asarre antzean*) Xalo! Ez dakit nola artzen dezun aintzakotzat.

SALOME: (*Otxan*) Anaia dezulako...

ENEKO: Ta atsegin ta gustokoa natzaizulako... (*Orreagatik*) Berak ere Birila gogoko balu... itxoingo lioke.

ORREAGA: Bestelakoxea! Pakean uzten al nau ba? Goazen, etorri ez dedin!

PELI: Atrapauko zauan bildur zagoz ala? Ezta ain bildurgarria... Nigaz San Mikelen ondo portau zen.

ENEKO: Noski, gizona or bakarrik utzita nola joango gera ba.

ORREAGA: Alperkeriz diozu ori. Ez mugitzeagatik. Zaude ba. (*Abiaturik*).

SALOME: Bai, bai, gelditu dedilla bera. (*Jarraiturik*) Goazen!

V. AGERRALDIA

Lengoak eta Birila.

BIRILA: (*Laisterka sarturik*) Nora zoazte? nora?... igesi?

PELI eta ENEKO: Emen da! Ba al zatoz?... (*Neskatxei deituaz*) E! Geldi.

SALOME: Ba al dator? e Jakiña? (*Itzuliaz*)

ORREAGA: (*Berekiko anaiairengatik*) Petral orrek du errua.

BIRILA: D. Kristobalekin gelditu naiz erletegian. Erle-lana ain da zoragarria.

SALOME: Eztena sartzen ez dutenean bai.

ENEKO: Ortan erleak baño okerragoak dira emakumezkoak.

ORREAGA: Ta zu bezelako erle-mandoak, zer egiten dute?...

PELI: Eztia ez beñepin.

BIRILA: Ja! ja! ja!... Anai-arrebak beti asarre.

ENEKO: Zuri itxoiteagatik izan da guztia.

BIRILA: Neri? Eskerrikasko. Ba emen nago nai dezuten lekura joateko gertu.

ENEKO: Nik esan det: itzalera. Antxe ondona!

BIRILA: Bazkalondoan nai badezute Orokietara lagunduko dizuet. An Morionesek karlistak nundik eraso zituen erakutsiko dizuet; ta baita ere D. Karlosek igesi egin zuan lekua.

PELI: Ezin, D. Birila; gaur gauerako Belaten izan bear dot, Aberri-eguna gertetan ari gera-ta.

ENEKO: Programa ederra: naparrak esnatzen toki onean! eta errege zarrari begira bestea. Antziña batek, eta etorkizuna bestek. Bion artean gaurko egun au ondatuko didazute ta, jaunak! auxe besterik ez zait gelditzen Euskalerrian. Noruntz joan? Nik egin det aukera: itzalera!

ORREAGA: Onena badakigu. Goasemazu ba ariztira.

SALOME: Itxoin arazten degunok emakumezkoak gerala esango dute gero.

BIRILA: Ori ez! Zuek nai dezuten lekura.

ORREAGA: Basora ba! Itzalera. (*Abiaturik*).



BIRILA: Basoan elbimando asko izaten dira ba.

ORREAGA: Basotik kanpora ere bai. (*Bijoaz Orreaga, Xalo ta Birila*)

PELI: (*Joanez*) Lagunduko dautsuet; bañan bazkal ostean goiz urten bear dot garaiz erduteko. Belate urrun bait dago, urrun egon be. (*Mendi aldera siñalatu*)

ENEKO: Urrunago zegok Amerika ta arako txartela atera zitek.

PELI: Ez yat ezagun. Umore onekoa ago.

ENEKO: Azaletik.

PELI: Bai, Eneko, negargarria benetan. Euskaldun baten lenengo egin-bearra sorterrian gelditzea dok. I galduko az betiko.

ENEKO: Ori ez! Agintzen diat. Santo Domingo nolakoa dan ikusiko diat eta urrengo ontzian... emen nauk berriz. (*Bijoaz*).

VI. AGERRALDIA

Kristobal eta Miel-Martin, gero Agustiñe.

(Etxetik datozelarik)

KRISTOBAL: Ez larri izan orregatik. Emen gasta dan dirua ongi xautua zegok. Etxeak beti balio dik. Udan ez dala jenderik etortzen? Ire bai, egazti, aria ta usoekin bizitzeko diña sortzen al duk. Ameriketatik kafe, azukre ta diru pixka bat bidaliko diat ta bapo!

MIEL-MARTIN: Ala bearko, bestela, ostatuak eta ollo eta erleak ematen ditekenez...

KRISTOBAL: A gizagoa! Obe dek etxean geldi intzana. Gu bezela Ameriketara bidali bainduten ez zekiat zer egin bear uan.

MIEL-MARTIN: Ez nian ortako balio. Iri eskerrak emen ongi bizi gaituk; bañan ainbeste diru gasta duk emen, ez dit nai bear aña lan egiten ez dedala ik uste izatea.

KRISTOBAL: Ori ez, anai.

MIEL-MARTIN: Gañera, Ameriketara oakenean, etxe au guzia nere gain artzeak kezka ematen zidak. Ez dek lanarengatik; kontuak zuzen eman bear dituk ordea, salerosten jakin, peritara joan, ibilli, erosi, saldu...

KRISTOBAL: Morroi bat ar zak.

MIEL-MARTIN: Onelako zerbait egin bearko diat.

KRISTOBAL: Artu ba, ez beldurrik izan.

MIEL-MARTIN: Xalomerekin ere zer egin ez dek errez asmatzen. Ikaste-txean egon dekan bitartean lan gutxi eman ziguk. Maistra egin dan ezker oso emakume egin zaiguk eta...

KRISTOBAL: Eta zer?...

MIEL-MARTIN: Mojetako batere zaletasunik ez ote zekarreken...

KRISTOBAL: Mutilletako izanen dik.

MIEL-MARTIN: Bai, Don Perminen semea ta bera beti elkarrekin dituk. Eta Eneko ori Ameriketara ziak, beraz Xalomek gazterik itxoiten asi bear dik.

KRISTOBAL: Atsegin bazaio. Amerika ez zegon ik uste bezin urrun anai. Gero ta bertago. Elkar maite badute, itxoitea ez dek luze iriztea.

MIEL-MARTIN: Ik onirizten badek...

KRISTOBAL: Xalok nork zaindua izango dik. Ik erleak zaindu itzak. Aurtan lore gutxi izan dek mendian eta negurako bearko ditek ezta ez abaraskan uztez aaztu.

MIEL-MARTIN: Aski ez baduk.

KRISTOBAL: Azukrea eman.

MIEL-MARTIN: Ez duk berdin... (*Urbil samar automobil otsa entzun bedi*)

AGUSTIÑE: (*Sarturik*) Iruñatik kamiona eldu da. Don Perminek agindu omen dio baulak, arropa ta gañerakoak jasotzera etortzeko. Ta zureak ere bai Kristobal.

KRISTOBAL: Txoferra egon dedilla lasai, Agustiñe. Gosaiten emaiozu; arraultz pareta urdai azpikoa, ardoarekin.

AGUSTIÑE: Bai, bai, ortatik badago etxe ontan.

MIEL-MARTIN: Arraultzetatik urri gabiltz.

KRISTOBAL: Jaten ugari eman bear olloai.

MIEL-MARTIN: Bai, eguraldi oberik ez badator ingurumai oitan artuak ez dauka eltzerik. Ez dakit zer eman.

AGUSTIÑE: Arto gutxi dago mandioan.

MIEL-MARTIN: Ta San Martiñak urrutu.

KRISTOBAL: Ori ere Ameriketatik bidaliko degu. Goazen txoperrak zer dion erantzutera.

AGUSTIÑE: Atarian dago. (*Bijoaz*)



VII. AGERRALDIA

Orreaga ta Peli.

(Oian aldetik datozela)

ORREAGA: Birilari igesi egin diogunean pozik nago. Ezin bait det uxatu; gaur iñoiz baño gutxiago.

PELI: Orregatik ete zagoz pozik?... ta itun?

ORREAGA: (*Lotsati*) Ta aren orde zazu laguntzera etorri zeralako.

PELI: Eskerrik asko; bañan ez yatzu asko ezagun. Etixeruntz etorteko presa andia dozu. Itun zagoz, egon be.

ORREAGA: Ezin burutik kendu det Eneko Ameriketara dijoana. Igarotzen ikusi degun kamion ori Enekoren gauzen billa etorri da.

PELI: Gaur Ameriketara joatea ez da antziñan lez. Joan-etorria arin dagite, arin gero.

ORREAGA: Arin, bai; baña naigabe aztuna, bitartean etxera datorkiguna (*Itun*) Aita-ama daude... mindurik eta asarre ta ni ez naiz malkoak txukatzeko gauza. Ozta-ozta...

PELI: Zoriontsua zazu lako alabea daben gurasoak.

ORREAGA: Bai, algerik nago. Ezagutzen al nazu ba?

PELI: Damurik, bear aña ez. Tamalez orain urten bear dot zazu laga-ta.

ORREAGA: Zoazen tokietan beste orrenbeste esan bide dezu. Laister aztuko zera nitzaz.

PELI: Ezta iñolaz be! Eneko Madriden lagun onenatarikoa izan neban; ta arrebea Naparroan ikusi dodan neskatillarik begikoena...

ORREAGA: Alaz eta guztiz emen utziko dezu bakarrik...

PELI: Joan bearrik ez baneu... (*Erabakia artuaz*) baña elkar ikusiko dogu barrero. Ez ta ala? Orain lagunek itxarotzen daukadaz. Amar erritan itzaldiak emoteko asmoa dogu, gero Napar-euskaldunen EGUN aundia ospatzeko. Iruñan izango zara egun artan ezta?

ORREAGA: Aitak uzten badit bai. Bera ez da alderdi orren etsai; bañan Birilak ezetz esaten badio...

PELI: Biok etorriko dira guregana; edo ta ostantzean geu joango gara areingana; onelakoa dogu Naparroa...

ORREAGA: Birilarengana ez e?

PELI: Bai, ordañez eskeñiko dautsagu Bizkaiko mutxurdin aberatsena. Guziok irabazi bear doguz Euskalerrirako... ta zazu ene biotzerako.

ORREAGA: (*Lotsati*) Ez dakit ba...

PELI: Iruñan berbaldi au jarraituko dogu...

ORREAGA: Ainbeste gauza gerta bear dute bitartean... Eneko badoa.

PELI: Betiko ez! Ta neu gelditzen naz...

ORREAGA: Ta Birila dator! Oi! (*Bidezabalera begiraturik*) Emen degu berriz gogaikarri ori. Sar gaitean!

PELI: (*Bidera begiraturik*) Ez! koitaroa plazara doa-ta. An zariela usteko dau. Presak darua.

ORREAGA: A bai! Aurrera jarraitu du; bañan nere gurasoak datoz. Ez det nai elkarrekin ikusi gaitezen. Barnera noa (*Saturik*)

PELI: Baita ni be. Kontua ordaindu bear dot... Motxila atonduten lagun-duko daustazu ala?... (*Saturik*)

ORREAGA: (*Barrundik*) Txalma bizkarrera jasotzen bai.

VIII. AGERRALDIA

Itziar, Permin eta Kristobal.

PERMIN: Iruñetik kamiona etorria dala irudi zait.

KRISTOBAL: Bai, mintzatu naiz txoperrarekin.

ITZIAR: (*Itunki*) Bera zan orduan!

PERMIN: (*Zakar*) Esan dizut ba (*Kristobali*) Baul billa etorria da ta zure txalma eta bidezorroak gertu ditzazuke dagokizunean.

KRISTOBAL: Nereak agudo prestatzen ditut. Ortara oiturik bait nago. Ogei aldiz iragan det itsasoa...

PERMIN: Entzun dezu, Itziar. Ez det nai izaten iñori itxoin araztea.

ITZIAR: Ez dago bildurrik gizona. Gure mutillaren gauzak aspaldi daude gerturik.

PERMIN: Obe, obe. Orain ba, On Kristobal, emen elkarrekin arkitzeko egokiera degun ezker, itzegin bearra dizut.

KRISTOBAL: Zuri entzutea beti zait atsegin.

PERMIN: (*Ben*) Kristobal: Ordu onek etorri bear zuan eta etorri da. Santo Domingora eldu zaitezteanean ez Enekori nere semea dala-ko nai duana egiten utzi; ez lanik barkatu. Ta Kristobal,



nere semeak, nagusi izango zaitunez, nundik nora dabillen begira bazenio.

KRISTOBAL: Zaude lasai, Permin. Ez dakit inor estu-estu artzen; bañan lana egin araziko diot nere ondoan bizi bear badu. Gañerantzean, ez beldurrik izan. Santo Domingo txikia bait da ta ezin urrutira joan. Geienik Puerto Platara ta gu gauden lekuan ez du izango indioen lagunartea besterik.

ITZIAR: (*Malkoak darizkiola*) Gizajoa!

PERMIN: (*Zakar*) Negar egiten asi zaite orain. Emakumezkoak malkoaz garbitzen dituzute arazoak.

KRISTOBAL: Ama bat ez bada biotzbera, nor?... Ez zaiozula malko-bide ori kendu.

ITZIAR: Eskerrik asko, Kristobal (*Antzika*) Eta osasun kontuan mutilla zaindu zazu...

KRISTOBAL: Ortan ez kezka izan. Osasun kontuan, an, aurreratugoak gaude emen baño. Yankitarrak ederki garbitu dituzte bazterrak. Gaxo etxe onak daude.

PERMIN: (*Itziarri*) Zer uste zenduan ba?

ITZIAR: Badakizu, etxetik ain urrun... Beti ere zuk begirako diozuna jakinda lasaigo gelditzen naiz. (*Malkoak txukaturik*) Ta, Kristobal, arren eta arren, igande eta jaietan meza entzutera joan dedilla txintxo; ta jaunartzea ere bai noiziak bain.

KRISTOBAL: Ori ez da ain errez izango; eliza urrutitxo bait degu. Apaizen bat aldiz bein agertzen zaigu; ez igandero ordea.

ITZIAR: Jai aundietan bederik mezatxo bat eta pazkoazko urtean bein...

KRISTOBAL: Egia esan jaiak noiz izaten diran ez degu jakiten.

ITZIAR: Jainkoagatik! Aitaren, Semearen!...

PERMIN: Ez dezu geiegi arritu bear. An beste erara bizi bait da. Bañan egiñalak egingo dituzte. Ta Kristobal bizi dan lekuan oitura onak iraungo dutela ez dago esan bearrik.

KRISTOBAL: Ori Permin... norberak gure utsegiteak ditugu. Gizona argala izan oi da.

PERMIN: Gure semeak ere baditu ba ta ain zuzen ere orain azkena egin duan burugabekeria aitortu bearrean natzaizu. Zuri dago-kizuna da-ta.

KRISTOBAL: Ez da orrenbestekoa izango.

PERMIN: Asieratik gauzak etentzea obe degu. Mutillak lanerako gogo gutxi izaki, bañan txorakeritako griña bai. Beste zeregin ezak nunbait udara ontan Xalomerekin adiskidetasun aun-

dian ibiltzeko bultza du! Ez au bakarrik, ezkontzeko itza ere eman dio.

KRISTOBAL: Xalomeri?...

ITZIAR: Ez da sinistu bear errian esaten dan guzia. Egun batzuetan lagun-
du diolako... zera! eztaiak...

PERMIN: Baezpada, ez det nai nere semeak inori iruzur egiterik Ameriketara joateko bezperan. Ta are gutxiago gu ostaturu gaituen etxeko alabari. Bai Kristobal, zure illobari...

KRISTOBAL: Ori ere ba al degu?

PERMIN: Zoritxarrez, ori ta geiago egiteko din da gure sente ori. Orregatik Kristobal, badakizu. Ameriketan estu samar lotu.

KRISTOBAL: (*Bat-batean erabakiaz*) Geiegi eskatzen didazula uste det. Norberak ez badu zentsunik alperrik da. Egia aitortuko dizut, Permin. Gaur zuri entzun arte ez nintzan kontun erori zure semea nerekin Ameriketara eramanaz leporatzen zenidan txalmaz... Aztuna gero! Lenago ere esana dizut: Ameriketant dirutzeko urte txarrak doazela; gaiztotzeko ta bide okerrera jotzeko erosoan. Lana emango diot; zer jana izango du. Ortik aurrera ordea... Ez dakit ez lukean obe, emen gelditzea... (*Senar-emazteak arriturik geldi bitez*)

ITZIAR: (*Itxaropenez senarrari*) Ara! D. Kristobalek zer dion.

PERMIN: (*Zeatz*) Berandu da.

ITZIAR: (*Negarti*) Ameriketan zer egin bear du gure Enekok?... Geiago okertu.

PERMIN: (*Zakar*) Ta emen zer?... Salomerekin ezkondu! (*Isilunea*)

KRISTOBAL: (*Ala-bearrez*) Salome, alaba det!

ITZIAR: (*Zarrastadaren ondoren*) Permin! Entzun al dezu?... (*Isilunea*)

PERMIN: Entzun det eta berak diorean ala izan bide da. (*Kristobali*) Mindu bazaitut, barkatu... Ez nuen uste...

KRISTOBAL: Ez dizut deus barkatu bearrik. Pekatua nerea da: orain emezortzi urtekoa... Ez dizuet esango... guzia, luze litzake-ta.

PERMIN: Ez gizona badakigu, edozeñi gerta leikeiona!

KRISTOBAL: Salome, an Santo Domingon jaiotza izan. Ama andik pizka batera il zitzaiolako emen obeto eziko zutela-ta, nere lenengo etorreran ekartzea erabaki nuen. Eta Xalo emen bizi da geroztik anaiaren etxean.

ITZIAR: (*Samur*) Jesus! Ipuia dirudi. Esaten nuen nik... Xalo gaxoa! Ezta alaba dezulako bañan neskatxa zoragarria da: esanekoa ta otxana. Artu ditekena.



KRISTOBAL: Ondo ezia dago bai, ta maistra gañera. Pozik nago.

ITZIAR: Esango nuke! (*Permini*) Kristobalek eman digun berri orrek gure asmo guziak alda araziko dizkigu. Ameriketara joatea beintzat...

PERMIN: Ori atzeratuko degu.

KRISTOBAL: Baietz uste det.

ITZIAR: Au nere poza! Jaungoiko maitea!

KRISTOBAL: Amona izateko bidean jartzera zoazelako.

ITZIAR: Ta zu aitona. Oraindik ez! ez! semea gelditzen zaidala pentsatzea ere...

PERMIN: Txartelak artuak daude gero...

ITZIAR: (*Zakar*) Utikan! zure txartelaz! Ez al derizkiozu Kristobal?

KRISTOBAL: (*Oarkabe bere ariari jarraiturik*) Beti nere ezkutua agertzeko garaia atzeratzen ari nintzan. Bitartean alaba emakumetu zait eta ezin gorde dezaket geiago isilik. Senargaia duen ezkerro aita nor duan aitortu bear.

PERMIN: Senargai orrek naigabeak emango dizkiona, jakiñean gañean zaude. Suitzat artzea geiago egiten dezu.

KRISTOBAL: Berak elkar ezagutu ta eraio badira guk zer egin?

ITZIAR: Ori esan. Gurasoak ezin dutena andregai on batek lortzen du. Enekok biotz...

PERMIN: Biotza ez da aski. Zentsuna, zentsuna bear du buruan.

KRISTOBAL: Ez dago mundu txarrean ikasteko.

PERMIN: Nun ordea?

KRISTOBAL: Emen bertan.

ITZIAR: Jakiña! Bañan... (*Bideruntz begraturik*) Ara! Emen datoz biak eta. Xalo ta Eneko! Ez badute ba egiten bikote politik!

PERMIN: Zu isilik zaude orain, beintzat, gerora astia izango dezu.

KRISTOBAL: Oraintxe bertan zergatik ez? Nai ta ere ez genuen izango egokiera oberik.

ITZIAR: Noski. Eskutara datozkigu-ta.

IX. AGERRALDIA

Lengoak, Salome eta Eneko

SALOME eta ENEKO: Egun on!
BESTEAK: Baita zuei ere! Ola! Ola!

ENEKO: (*Aitzeki-maitzekiz*) Birila ta Orreagak etxerako presa zuten eta atzean utzi gaituzte. Bilbaoko adiskidea oraintxe doa ta azken agurra egitera gatoz...

PERMIN: (*Legor*) Ez digu batere ajolik.

ITZIAR: Oso mutil atsegiña da.

PERMIN: (*Etenik*) Ark egin dezake nai duana. Gaur, Eneko, zure etorkizuna erabaki bear degu. Ez dezu jarraituko beti astia galtzen. Don Kristobalek esango dizu zer egin.

KRISTOBAL: Ni al naiz nagusia emen?

ITZIAR: Zu zera itzaren jabe.

KRISTOBAL: Ez naiz sekulan, ezta indioen artean onelako estuasunean arkitu. Itz gutxitan ba, Xalo ta Eneko; zuen artean zerbait badezute, ez da ala?... (*Isilik geldi bitez*) Ez beldur izan. Zer-bait.... (*Salomek lurrera begira beza*)

ENEKO: Bai jauna.

KRISTOBAL: Ba, Eneko, ez zerate umeak. Ezin bizi izango zerate beti onela.

PERMIN: (*Enekorengatik*) Ez luke besterik nai orrek.

ITZIAR: Kristobalek itzegin dezala, eta ez zuk. Ortan gelditu gera.

KRISTOBAL: (*Salomeri*) Enekok baietz esan du ta zuk ez didazu ezer erantzun.

SALOME: (*Lotsatuta*) Bai, osaba.

KRISTOBAL: (*Biotzez*) Osaba ez, aita!

SALOME: Aita? (*Txauturik itzik gabe geldi bedi*)

KRISTOBAL: Bai, aita! (*Salome besarkaturik*) Beti gazteegi arki oi zindudan egi au aitortzeko: aita nazu bai. Ta jakin baño lenago biotza beste bati eskeñi diozu.

ITZIAR: (*Malkoak darizkiola*) Seme alabekin ori gertatzen zaigu.

KRISTOBAL: (*Enekori*) Ta zu morroitzaz ez ezik semetzat artzen zaitut. Ea zure burua, lan egiñaz ta zintzo jokatuz, Salomeren diñakoa egiten dezun. (*Eskubi aldean alaba duela, ezkerreko besuaz Eneko besarkatu beza*)

ENEKO: Bai, Don Kristobal, bai. Oraindaño ergela izan banaiz, aurrerantzean zuzenduko naizela, guzioi agintzen dizuet.

PERMIN: Ogei urte oietan ori ezin iritxirik amaika lan eta buruauste eman dizkidak. Ez dik Jaungoikoak mirari txikia egingo.

ITZIAR: Goiko Jaunak beti gauza aundiak; ta oraingo aldian Xalomeren bitartez. (*Salome besarkatu beza*)



KRISTOBAL: Orduan Ameriketarako biajea atzeratu egin bear ko degu. Bestela ere badago emen franko lan. Ez da ala?

ITZIAR: Jakiña!

KRISTOBAL: Don Permini galdegiten nion.

PERMIN: Zuk ala erabaki dezun ezker. Ongi da. Ez det itzik egin nai. Eskuak garbitzen ditut.

ITZIAR: Ori da zure egitekoa. Ameriketara joan gabe ere emen bizi modua aterako dute bai.

KRISTOBAL: Beste orrenbeste izan bagenuen, ez giñan gu ere erbestera-tuko, ez. Don Permin zure semea lanean eta irabazten ikusi-siko dezu.

ENEKO: Agintzen didazuten tokian gogoz jardungo naiz.

KRISTOBAL: (*Irritsu*) Besterik ez bada Salomerekin bidaliko zaitut eztia saltzera. (*Par algara guziok*)

ITZIAR: Lantegi okerragoak izaten dira. Geldi ditezela emen beintzat. Guk ere zartzaroan nork zaindua bear degu.

AZKEN AGERRALDIA

*Lengoak eta Birila, Orreaga,
Peli, Miel-Martin ta Agustiñe.*

*(Azkeneko oiek Peliri agur egitera atera dira.
Au, txalma, motxila bizkar gañean duala abiatzera doa)*

PELI: (*Etxeko atean beste guziaz inguratua agertzen dalarik*) Agur etxe ta etxe-koak! Beste bat artio! Ea guziok elkar ikusten degun Iruñako Aberri-egun aundian.

BIRILA: Leireko arri santuak eroriak dauden bitartean ez da altxako Naparroa.

MIEL-MARTIN: Au Jeremias!

PELI: Orain gogoak, gero arriak. (*Orreagarengana urbildurik*) Egun artan Iruñan ez bazagoz, etorriko naz barrero onuntza.

ORREAGA: Baliteke ordurako Iruñan izatea. Ez dakit noiz arte geldiko geran emen.

PELI: Ni zure eskuaren billa etorri artio...

AGUSTIÑE: (*Goiko leiotik*) Bijoa ondotoxo, jaun. Berriz ere etorri nai dezu-nean.

ENEKO: (*Pelirenganatuaz*) Zer?... Joan?... Gaur bazkaldu gabe ez aiz emendik irtengo. (*Oiuka*) Miel-Martin! Miel-Martin! Kendu zaizula txalma (*Motxilarengatik*) Ni ez emen noa Ameriketara ta au ere ez Koko errira! (*Miel-Martin eta biak motxila kendu bezaiote*)

PELI: (*Arriturik*) Zelan leike au? Zer jazoten da amen.

ENEKO: «Amen» bai. Ez noala Ameriketara.

ITZIAR: (*Orreagarengana joanaz eta besarkaturik*) Orre! poztu zaitte! Jesus! Azkenean Eneko gelditzen da... ta... ta... Salomerekin ezkonduko da!

ORREAGA: Xalo! (*Adiskide biak besarkatu bitez*) Nola diteke ordea?

SALOME: Neronek ba al dakit?

ITZIAR: (*Pozaren-pozez*) Kristobalek adieraziko dizue.

KRISTOBAL: Ez da ain ulergaitza gertatzen dana. Eneko ta Xalo, nere alaba...

BIRILA: Zure alaba?

KRISTOBAL: Bai, nere alaba. Kondaira asko dakizkitzu, ez guziak ordea. Ba nere alaba Xalo ta Eneko ezkontzen dira. Ta oraingoz mutil onen Ameriketarako asmoa utsean gelditu bear (*Samur*) Ordez (*Bere buruarengatik*) au joango da bere Amerika maitera, ango gauzak antolatzera; azken agurra egitera. Gazteak gelditzen dira emen.

PERMIN: Bai, Enekorentzat atera degun txartela beintzat alperrik galduko da...

ITZIAR: Nork daki?... Agian Birilak lur berriak ikustera joan naiko du edo...

ORREAGA: Abenturak atsegin zaizkio ba.

KRISTOBAL: (*Berekiko*) Besterenak ordea.

BIRILA: Abentura ta arriskuak legorrean bai. Bestela itsas-miñaren beldur naiz.

ITZIAR: Gizon ausarta zera itsasoaren beldur bazaude. Itsasoa baño asarreagoak emen dira zenbait emakumezko. Obe dezu ez ezkondu.

BIRILA: Ori beste asarrea da: maite-asarrea.

KRISTOBAL: Gaur da Hotel Basaburuak ezagutu duan egunik alaiena. Jaitu dezagun beraz. Aski degu ostatuz, ta aurrerantzean



Hotel Basaburua nere semeen etxea izango da «Kristobalena». (*Peliri*) Geldi zaiete gurekin gazte.

PELI: Neure aldrako lagunak itxaroten daukadaz iganderako batzarra gertuten...

GUZIOK: Geldi dedilla...!

ENEKO: Ta igandean guziok joango gaituk zuen itzaldiak entzutera.

ORREAGA: Ondo asmatua dago (*Salomeri*) Nere anaiari zentsua etortzen ari zaio.

SALOME: Ala dirudi.

KRISTOBAL: Gaur gelditzen dan ezkerro, igandez an izango gaituzu.

BIRILA: Laguntzalle izango nazute.

ITZIAR: Guziok automobilletan sarturik: zar eta gazte. Zu ere bai, Permin.

PERMIN: Alperrik ibiltzea ez zaidala atsegin badakizute. Zalaparta artean gutxiago.

KRISTOBAL: Zalaparta puska bat atera diteke «seme galdua» bide zuzenera etorri zaizulako. Ebanjelioa nik baño obeki dakizu.

PERMIN: Seme galduaren etorreraz zerbait badio, ez du aitatzen ordea bereala, adiskide baten alabarekin ezkondu zanik.

MIEL-MARTIN: (*Irritsu*) Ebanjelioak ez dio ezer, egia da; nik ikasi nuen ordea alako atsotitz ura: «*Alaba ezkon ezak al dukenean*».

ITZIAR: Ta semea?

KRISTOBAL: Nai dezanean Miel-Martin! Gazte orren motxila jaso zazu. Eltzera, ipurdiz gora oillo ederrena sartu zazu; ta atera itzazu maira ardo onenak. Egun aundia gaurkoa!

MIEL-MARTIN: Gauzak aguro erabakitzeko ez dago Ameriketara joana izatea besterik.

KRISTOBAL: Obe dek emen gelditu intzana, bestela an galduko intzan betiko.

ITZIAR: Bai Eneko ere.

PELI: Euskaldun baten lenengo egin-bearra sorterrian gelditzea da naiz biziaren bideak nekeagoak izan. (*Orreagari begiraturik*) Iñoiz arkitu ote dogu atsedeteko altzo biguñia.

OIALA BERA

AMAIA